

KANBOKO HERRI BILTZARRAREN 2023ko ABENDUAREN 12ko BILKURA AKTA LABURRA

Hor ziren: Christian Devèze, Auzapeza, Eliane Aizpuru, Jean-Noël Magis, Yolande Huguenard, Didier Irastorza, Robert Poulou, Christiane Hargain-Despéries, Vincent Goytino, ordeak, Véronique Cadepond-Larronde, Corinne Othatcegy, Jean-Paul Eyherachar, Nicole Amestoy, Isabelle Ayerbe, Maud Gastigard, Roger Barbier, Bernadette Remeau, Carmen Gonzalez, Peio Etxeleku (20:05 arte), Jean-François Lacosta (20:05 arte), Argitxu Hiriart-Urruty (19:27 arte), Philippe Bacardatz s(19:27 arte), Nathalie Aïçaguerre (19:27 arte), Jean-Paul Alaman (19:27 arte), Amaia Beyrie (19:27 arte), Alain Boscq (19:27 arte), Xabier Heguy (19:27 arte) herri biltzarkideak.

Ezin etorriak: Marie Aristizabal,ordea, Jean-Jacques Lassus, Sébastien Carre, Peio Etxeleku (20:05etik goiti), Jean-François Lacosta (20:05etik goiti), Argitxu Hiriart-Urruty (19:27tik goiti), Philippe Bacardatz (19:27tik goiti), Nathalie Aïçaguerre (19:27tik goiti), Jean-Paul Alaman (19:27tik goiti), Amaia Beyrie (19:27tik goiti), Alain Boscq (19:27tik goiti), Xabier Heguy (19:27tik goiti), herri biltzarkideak.

Ahalordeak: Marie Aristizabalek Yolande Huguenard-i, Jean-Jacques Lassus-ek Jean-Noël Magis-i, Sébastien Carre-k Christian Devèze-ri.

– Herri biltzarkide berri baten leku hartzea.

Auzapezak herri biltzarkideei jakinarazi die 2023ko agorrilaren 31an Lilian Hirigoyen andereak dimisioa eman zuela herri biltzarkide kargutik. Ondorioz, ordeztu behar da.

Hasi aitzin, herriaren alde izan duen inplikazioa eta engaiamendua eskertu ditu, baita bere lana ere, bereziki emazte eta gizonen arteko berdintasun batzordean.

Frantziako hauteskunde kodeko L.270 artikulua honakoa dio: « herri biltzarkide baten jarlekua hutsik gertatzen bada, zein izan ere arrazoia, zerrendako azken hautatuaren ondorengo hautagaiak hartuko du haren lekua».

2023ko urriaren 6an gutuna igorri zion Elisabeth Charriau andereari, zeinak ez baitzion baiezkorik eman. Ondotik, Xabier Heguy-ri eskaera egin eta hark 2023ko urriaren 27an eskuratu gutun bidez onartu zuen Herri Biltzarkide izatea.

Ondorioz, Xabier Heguy-k ordeztuko du Lilian Hirigoyen Herri Biltzarrean.

Auzapezak ongi etorria egin dio.

- Saioko idazkariaren izendapena.

Biltzarkideek aho batez, Jean-Paul Eyherachar jauna izendatu dute saioko idazkari izateko.

19:27 arte:

Herri biltzarkideen kopurura	29
Presente diren herri biltzarkideak.....	26
Ahalorde kopurua.....	3
Hor ez diren kopurua.....	3

19:27tik 20:05 arte:

Herri biltzarkideen kopurura	29
Presente diren herri biltzarkideak	19
Ahalorde kopurua	3
Hor ez diren kopurua	10

20etatik goiti:

Herri biltzarkideen kopurura	29
Presente diren herri biltzarkideak	17
Ahalorde kopurua	3
Hor ez diren kopurua	12

– Solasgaiak:

001 – 2023ko uztailaren 5eko Herri Biltzarraren aktaren onespena.	3
002 – Delbarre karrika – lur sailak berariaz eremu publikoan sarrarazteko prozedura: inkestaren abiatzea.	6
003 – Bordart Etorbidea / Chatard Doktorearen karrika / A. Neubourg hiribidea – lur sailak berariaz eremu publikoan sarrarazteko prozedura: inkestaren abiatzea.	7
004 – Rita Labéguerie hiribidearen izendapena.	8
005 – Herriko bide batzuen izenen aldatzea.	9
006 – Herriko bideak: herriko bideen sailkapen taularen eguneratzea.	11
007 – Euskal Elkargoa: helbideratzearen eguneratzeko laguntza bateratu amankomunaren zerbitzuan bazkietzea.	11
008 – Eraikin bat bertako Gurutze Gorriaren adarrari eskura ezartzeko hitzarmena.	14
009 – Tennis zelain estaliak eta club-house-a tenis elkartearen eskura ezartzeko hitzarmena.	14
010 – Enedis: pasatzeko eskubide baten hitzarmena.	15
011 – Alokairurako etxebizitza lagunduen erreserbatzeko eskubideen kudeaketa: errentatzaile sozialekiko kudeaketa hitzarmena.	15
012 – Herria Pass Culture dispositiboan bazkietzea eta partaidetza hitzarmena.	16
013 – Segurtasunaren eta Delinkuentziaren Prebentziorako Tokiko Kontseiluaren sortzea (SDPTK/CLSPD).	17
014 – Hilerria: utzikeria egoeran diren behin betiko kontzesioen berriz hartzearen lehen zatia.	19
015 – Hilerria: Zazpi hilobi berriren prezioarne finkatzea.	21
016 – Essor Cycliste Basque lasterketa: 2024ko hitzarmena.	21
017 – 2024ko urtarrilaren leko salneurriak.	22
017A – Herriko apartamenduen alokairu sariak.	22
017B – 2024ko leku eskubideen eta eremu publikoa okupatzeko salneurriak.	22
017C – 2024ko hatu merkatuaren salneurriak.	23
017D – 2024ko Bixkotx Bestaren salneurriak.	23
017E – 2024ko Arnagako salneurriak.	24
017F – Gelen eta materialen alokatze sariak.	24
017G – 2024ko mediatekaren salneurriak.	26
018 – Besta Batzordea: 2024ko dirulaguntzaren aurrerakina.	27
019 – 2023ko Programa Baimenak eta Ordainketa Kredituak (PB/OK - AP/CP).	28
020 – Aurrekontu nagusia: 1. erabaki aldatzailea.	29
021 – Inbertsio gastuen kredituak antizipazioz irekitzea.	32
022 – Artzamendi XBHAS: partaidetza hitzarmena.	33
023 – Langileria: 2023/2025 Formakuntza Plan Bateratua.	33
024 – Langileria: Eremu Publikoaren Zaintza Langile (EPZL/ASVP) enplegu ez iraunkor baten sortzea.	34
025 – Langileria: enplegu iraunkorren sortzea.	34

025A – Langileria: denbora osoko koordinatzaile soziokultural enplegu iraunkor baten sortzea.	35
025B – Langileria: denbora osoko Haurtzaro-Gazteria-Hezkuntza arduradun enplegu iraunkor baten sortzea.	36
025C – Langileria: denbora osoko animazio kargudun euskaldun enplegu iraunkor baten sortzea.	37
025D – Langileria: denbora ez osoko (asteen 20 oren) lokalen mantenurako enplegu iraunkor baten sortzea.	38
025E – Langileria: denbora ez osoko (asteen 22 oren) lokalen mantenurako enplegu iraunkor baten sortzea.	39
025F – Langileria: denbora ez osoko (asteen 25 oren) lokalen mantenurako enplegu iraunkor baten sortzea.	40
025G – Langileria: denbora osoko udaltzain enplegu iraunkor baten sortzea.	41
026 – Langileria: lurralde ingeniari eta teknikarien Funtzio, Menpekotasun, Aditurgia eta Engaiamendu Profesionala kontuan hartzen dituen Ordainsari Erregimena (RIFSEEP).	42
027 – Txakurrak XBHAS: 2022ko jarduera txostenaren aurkezpena.	45
028 – Euskal Elkargoa: Hondakinen prebentzioa eta kudeaketa Zerbitzu Publikoaren Salneurriei eta Kalitateari buruzko 2022ko txostena.	46
029 – Euskal Elkargoa: Ur edangarriaren eta saneamendu kolektibo eta bakarkakoaren Zerbitzu Publikoaren Salneurriei eta Kalitateari Buruzko 2022ko txostena.	47
030 – Euskal Elkargoa: 2022ko jarduera txostenak.	49

Isabelle Ayerbe anderea gelan sartu da.

001 – 2023ko uztailaren 5eko Herri Biltzarraren aktaren onespena.

ERABAKIA:

2023ko uztailaren 5eko saioaren akta Herri Biltzarraren bozkara eman da.

Herri Biltzarrak, eztabaidatu eta gero, aho batez:

ONARTU DU 2023ko uztailaren 5eko Herri Biltzarraren Akta.

HITZ HARTZEAK:

Hiriart-Urruty andereak batzorde hasieran hitza hartu nahi izan du, militanteak eta laborariak presente direla, Marienia proiektua aipatzeko.

Auzapezak oroitarazi dio badela errespetatu beharreko solasgaien zerrenda bat, zerrenda hori ez daitekeela aldatu, eta bestelako gaiak, hala nola Marienia proiektua, Herri Biltzarraren saio bukaeran aipatzekoak direla.

Entzule batek hitza hartu du erranez ez zaiola horretarako proposamenik egin, baina Marieniaren gaia saio hasieran aipatzea nahi izan du, entzuleen artean laborariak daudelako.

Auzapezak deitoratu du ezin duela eskaera hori onartu. Herri Biltzarraren saioa dela zehaztu du, eta biltzarkideek Marieniaren gaia bestelako gaien artean aipatuko dutela, oposizioko kideek eskatu baitute.

Bere solaskideak deitoratu du ez baita aukerarik izan Marienia proiektuaz eztabaidatzeko, zeinarentzat eraikitze baimen eskaera berria onartu baita, baina, berak dakienez, sekulan ez laborantza eta hirigintza batzordeetan aipatu gabe.

Auzapeza ez da ados oharrarekin, eta oroitarazi du Marieniaren gaia luze eta zabal eztabaidatu dela, baita aitzineko agintaldian ere. Hirugarren aldikotz zehaztu du bestelako gaiekin aipatuko dela Herri Biltzarraren funtzionamendu arauak begiratz.

Solaskideak «ez du onartu» gaia bestelako gaien artean aipatzea, eta adierazi du behin eta berriz hitzordua galdegin duela gai horren aipatzeko.

Auzapezak erran du eztabaida hori auzitegira eraman duela oposizioak eta ondorioz instrukzioaren ondotik emanen den epaiaren beha egon behar dela, eta epai hori errespetatu beharko dela. Kontuan izanik, administrazio auzitegiak bere epaia atzeratzea erabaki duela hasierako eraikitze baimena moldatu artean, gehienez bost hilabeteko epean. Moldaketa eginga izan denez, eraikitze baimena naturaltasun osoz onartua izan da, auzitegiak eskatu bezala.

Solaskideak gehitu du herri biltzarkideek jakin behar dutela zer idatzia den defentsaren memorietan.

Auzapezak adierazi du herri biltzarkide guziek ukan dutela administrazio epailearen gibelatzeko eta eraikitze baimena moldatzeko agindua.

Argitxu Hiriart-Urruty andereak deitoratu du hautetsiek ez baitute sekula aukerarik ukan Marieniaren eraikitze baimena Herri Biltzarrean aipatzeko.

Auzapezak ihardetsi dio Marienia proiektua behin eta berriz eztabaidatu dela agintaldi honetan eta aitzinekoan.

Amaia Beyrie andereak gehitu nahi izan du proiektu horretatik ateratzeko aterabideak aipatzeko xedea dutela, hala nola herriak THP aldatzeko duen gaitasuna. Etchegaray jaunak eta inguruetakoz auzapezek ere helarazi dituzte soluzio horiek.

Auzapezak zehaztu du saio horretan badirela gai batzuk aipatzekoak, hain zuzen Herri Biltzarrerako deialdian zerrendatu direnak. Gaineratekoarentzat, beti erran du gaia auzitegira eraman dutenez geroztik, elkarrizketa abokatuen bidez egingen dela eta ez gehiago leku honetan.

Solaskideak kontuan hartzen ditu solasteko borondate eza, udalak laborarientzat duen begirune eskasa, sekulan ez baititu errezibitu ez eta ere entzun.

Auzapezak erran du badela garaia solasgaitara pasatzeko.

Entzulegoa oihuka hasi da: Marienia ez hunki, Marienia ez hunki... eta Euskal Herria ez da salgai.

Peio Etxeleku jaunak galdera bat egin nahi izan du bigarren eraikitze baimenaren onartzeari buruz.

Auzapezak zehaztu du hasierako eraikitze baimenaren moldaketa besterik ez dela, auzitegiak agindu bezala.

Peio Etxeleku jaunak ohartarazi du eztabaida baten egitea eta Herri Biltzarrean bozkatzea eskatu zuela...

Auzapezak ihardetsi dio ezin dela saioa baino bi egun lehenago solasgai berri bat gehitu. Eta horregatik oposizioek eskatu gaiak bestelako gaien artean solastuko direla. Adierazi du auzi bat bidean dela eta horren emaitzaren beha egon behar dela.

Lehen solaskideak adierazi du Auzapezak baduela Marieniako lurren salbatzeko ahalmena, epaiaren beha egon gabe.

Auzapezak ihardetsi dio beti segituko duela legeak agintzen duena, eta ondorioz auzitegiaren epaia ere segituko duela.

Argitxu Hiriart-Urruty andereak azaldu du Nahi Dugun Herria taldeko kideak saiotik aterako direla laborarien sostenguz, demokrazia ukatua baita orain dela hamar bat urte «bere laguntxoei eta Bouygues-ri plazer egiteko».

Auzapeza sumindu da eta erantzun dio ez dezakeela horrelakorik erraten utzi.

Ikus-entzuleak txaloka. Ikus-entzuleen oihuak: «Marienia ez hunki – kapitalismoa – kapitalista».

Ikus-entzuleak auzapezaren kontra: «Zu kapitalista, ustela, hori dena diruaren izenean».

Ikus-entzuleak gelatik atera dira "Euskal Herria ez da salgai" oihukatuz.

Ikus-entzule batek: «itzuliko gira».

Nahi Dugun Herria taldea gelatik atera da: Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Nathalie Aïçaguerre, Jean-Paul Alaman, Amaia Beyrie, Alain Boscq, Xabier Heguy.

Nahi Dugun Herria taldeko kideak joanik eta Auzapezak quoruma egiaztaturik, saioari segida eman dio.

Auzapezaren erabakien komunikazioa.

Frantziako Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorreko L.2122-22 eta L.2122-23 artikuluen arabera, eta 2020ko ekainaren 11ko Herri Biltzarraren erabakia ikusirik, honakoen berri eman da:

- Hilerriko kontzesioen emateko eta berriz hartzeko erabakiak, 2023ko ekainaren 18tik 2023ko azaroaren 22ra:
 - 30 urteko kontzesioen erostea (+ hilobia): 3
 - 30 urteko kontzesioen erostea (+ hilobitxoak): 3
 - 15 urterako kontzesio eraberritzea, lurrean: 2
 - 30 urterako kontzesio eraberritzea, lurrean: 1
 - 30 urteko kontzesioen eraberritzea (hilobiak): 6
- 2023ko agorrilaren 28ko D-2023-016 erabakia: Arnaga etxearentzako Cyrano de Bergerac-en 3 marrazkiren ematearen onartzea, 4 750 €ko balio batekin.

- 2023ko agorrilaren 28ko D-2023-017 erabakia: Arnaga etxearentzako Cyrano de Bergerac-en hamaika marrazkiren ematearen onartzea, 13 750 €ko balio batekin.
- 2023ko irailaren 20ko D-2023-018 erabakia: Pirinio Atlantikoetako irakurketa Publikoaren 2023/2027 Eskemaren baitan mediatekan «atzerriz hizkuntzako literatura» sail baten sortzeko dirulaguntza eskaera Pirinio Atlantikoetako Departamenduari, altzarien erosteko eta funtsaren osatzeko, altzarien balioaren (1 429,16 €) %40, hots 571,66 € eta 1 000 € lehen liburuaren erosteko.
- 2023ko irailaren 20ko D-2023-019 erabakia: Pirinio Atlantikoetako departamenduaren « définition et mise en œuvre de politiques cyclables de proximité » deialdiaren baitan, bizikletentzako azpiegituren antolatzeko dirulaguntza baten eskaera, 1 200 000 €ko inbertsio gastu osoaren %20, hots 240 000 €.
- 2023ko urriaren 23ko D-2023-020 erabakia: zalditegiak eta laranjategia berroneratu eta berregituratzeko proiektuaren obra kudeantza merkatua PIEL tailerrari esleitzea.
- 2023ko azaroaren 15eko D-2023-021 erabakia: Kanboko altxortegian eperako kontu baten irekitzea 2023ko azaroaren 15etik eta 9 hilabeterako, 700 000 €ko zenbatekoarekin.(D-2023-007 erabakia ordeztzen du).
- 2023ko azaroaren 17ko D-2023-022 erabakia: 980 000 €ko mailegu baten onartzea LA BANQUE POSTALE bankuan.
- 2023ko azaroaren 21eko D-2023-023 erabakia: 980 000 €ko mailegu baten onartzea LA BANQUE POSTALE bankuan, (D-2023-022 erabakia deusezten du).
- 2023ko azaroaren 24ko D-2023-024 erabakia: Arnaga etxearentzako berrogeita hemeretzi objektuen dohaintza (dominak, jatorrizko argitalpeneko liburuak, aldizkariak, Rostandarren obrari buruzko egunkariak) 2 500 € balio batekin.

002 – Delbarre karrika – lur sailak berariaz eremu publikoan sarrarazteko prozedura: inkestaren abiatzea.

ERABAKIA:

Jean-Noël Magis, auzapezordeak oroitarazi du, duela urte zenbait herriak errepide lanak egin zituela bizilagunen baimenarekin:

- Delbarre karrikaren zabaltzea (AY 102)
- Jambonia jabegoaren aitzineko zabaltzea (AY 175)

Herri biltzarrak horretarako erabakiak hartu zituen 2012ko uztailaren 16an eta 2012ko urriaren 8an, eta inkesta publikoa egin zen.

Haatik, ohartarazi du Herriak eskuratu dituen lur sail horien salmenta agiriak ez zirela egin. Herri Biltzarrari proposatu dio egoera hori zuzentzea.

Alabaina, lehengo jabeak hil ondoko ondoriotasun ekintzetan lur sail horiek ahanziak izan direnez « eremu publikoan berariaz txertatu» behar dira. Horretarako inkesta publikoa egin behar da;

Herri Biltzarrak, Magis jaunaren azalpenak entzunik eta deliberaturik, aho batez:

ERABAKI DU Orain dela urte batzuk egin ziren errepide ekintzen erregularizatzea, horretarako baliatu diren lur sailak «eremu publikoan berariaz txertatuz»:

Lur sailak	Azalera	Jabea	Prezioa	Bidearen izena
AY	0102	MOULIAN eta HARAMBOURE ondoriotasuna	Ordain saririk gabe	Delbarre karrika
AY	0175 (lehengo AY 120p)	JAMBONENIA jabekidetza (HARAMBOURE Jean ondoriotasuna)	Ordain saririk gabe	Txokolategiko karrika

ONARTU DU Frantziako hirigintza kodeko L 318-3 artikuluan aipatzen den berariaz eremu publikoan txertatzeko prozedura (lehengo jabeak hil eta oinordekotzan ahantzi ziren lur sailak eremu publikoan berariaz txertatzeko inkesta publikoa)

BAIMENA EMAN DIO Auzapezari ekintza horren eta eremu publikora pasatzeko behar diren izapideen egiteko, eta bereziki herriko bideen plano eta sailkapen taula eguneratzeko.

003 – Bordart Etorbidea / Chatard Doktorearen karrika / A. Neubourg hiribidea – lur sailak berariaz eremu publikoan sarrarazteko prozedura: inkestaren abiatzea.

ERABAKIA

Jean-Noël Magis jaunak, ordea, Herri Biltzarrari azaldu dio biltzar horrek 1994ko uztailaren 26an baimena eman zuela Herriaren eta SCI DE BERGERAC sozietatearen arteko hitzarmena izenpetzeko.

Horrela, SCI DE BERGERAC sozietatea engaiatzen zen BORDART karrika zabaltzeko beharrezkoak ziren lur sailak uririk herriari uztera, Anne DE NEUBOURG hiribidean, eta bi errepideen arteko lotura-bide bat egitera (gaur egun J. CHATARD Doktorearen karrika dena).

Herriak bere gain hartzen zuen hainbat hesi-horma suntsitzea eta berriz egitea. SCI DE BERGERAC sozietatea engaiatzen zen horma horien eta galtzaden berriz egiteko materiala hornitzera. Lur saila uzten zituenak Anne de Neubourg hiribidean 5 aparkatzeko leku atxiki nahi zituen.

Lur sailen emateko agiria egin ez zenez, egoera zuzendu behar da. Hitzarmenaren arabera «honako hitzarmena soilik sartuko da indarrean baldin eta SCI de Bergerac sozietateak lur sailen uzteko agiri formalak erregularizatuko dituzenean».

Anne de NEUBOURG hiribideko aparkatzeko lekuak gaur egun eremu publikokotzat hartzen dira. Herriak du karrikaren mantenua egiten.

Gaur egun, komeni da lur sail horiek eremu publikora berariaz txertatzea. Horretarako inkesta publikoa egin behar da.

Herri Biltzarrak, Magis jaunaren azalpenak entzunik eta deliberaturik, aho batez:

ERABAKI DU Orain dela urte batzuk egin ziren errepide ekintzen erregularizatzea, horretarako baliatu diren lur sailak «eremu publikoan berariaz txertatuz», ordain saririk gabe:

Lur sailak	Azalera	Jabea	Bidearen izena
AV 200	739 m ²	SCI DE BERGERAC	A de NEUBOURG hiribidea/ Joseph CHATARD Medikuaeren karrika
AV 198	36 m ²	SCI DE BERGERAC	BORDART etorbidea

ONARTU DU Frantziako hirigintza kodeko L 318-3 artikuluan aipatzen den berariaz eremu publikoan txertatzeko prozedura (lur sailak eremu publikoan berariaz txertatzeko inkesta publikoa)

BAIMENA EMAN DIO Auzapezari ekintza horren eta eremu publikora pasatzeko behar diren izapideen egiteko, eta bereziki herriko bideen plano eta sailkapen taula eguneratzeko.

004 – Rita Labéguerie ibilbidearen izendapena.

ERABAKIA:

Jean-Noël Magis jaunak, auzapezordea, adierazi du Frantziako Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorreko L.2121-30 artikulua Herri Biltzarra behartzen duela errepide eta leku publikoei, baita zirkulazioari irekiak diren bide pribatuei izenak ematea.

Horren xedea da segurtasuna hobetzea (sorospen zerbitzuak bertara heltzeko) eta beste zerbitzuen eraginkortasuna hobetzeko (posta, sare hedatzaileak, banaketak, pertsonentzako zerbitzuak...).

Kode berak dio Herriak bideen izenak, etxe eta bestelako eraikinen zenbakiak eskura izan behar dituela, Frantziako Publikoaren eta Administrazioaren Harremanen Kodeko L.321-4 artikulua erreferentziazko datuok eskura izan behar direla adierazirik.

Ikusirik, Herri Biltzarraren 2022ko abenduaren 21eko erabakia, eta gaur egun hartzeko dena,

Kontuan izanik, jendarmeriaren karrika itsuan hasten eta Lore saltzaileen karrikan bukatzen den bidea izendatu behar dela,

Honako izendapena proposatu du « Allée Rita Labéguerie – Rita Labéguerie ibilbidea »

Herri Biltzarrak, Magis jaunaren azalpenak entzunik eta deliberaturik, aho batez:

ONETSI DU Jendarmeriaren karrika itsuan hasten eta Lore saltzaileen karrikan bukatzen den bidea « Allée Rita Labéguerie – Rita Labéguerie ibilbidea » izendatzea.

AGINDU DIO Auzapezari behar diren izapide guztiak egitea eta besteak beste herriko bideen plano eta taula eguneratzea.

BAIMENA EMAN DIO, Auzapezari izendapen berri horren ezartzeko izapide guztien egiteko (izendapen plaka erostea eta ezartzea,...)

005 – Herriko bide batzuen izenen aldatzea.

ERABAKIA:

Jean-Noël Magis jaunak, auzapezordea, adierazi du Frantziako Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorreko L.2121-30 artikulua Herri Biltzarra behartzen duela errepide eta leku publikoei, baita zirkulazioari irekiak diren bide pribatuei izenak ematera.

Horren xedea da segurtasuna hobetzea (sorospen zerbitzuak bertara heltzeko) eta beste zerbitzuen eraginkortasuna hobetzeko (posta, sare hedatzaileak, banaketak, pertsonentzako zerbitzuak...).

Kode berak dio Herriak bideen izenak, etxe eta bestelako eraikinen zenbakiak eskura izan behar dituela, Frantziako Publikoaren eta Administrazioaren Harremanen Kodeko L.321-4 artikulua erreferentziazko datuok eskura izan behar direla adierazirik.

Ikusirik, Herri Biltzarrak 2022ko abenduaren 21eko horretarako hartu 21-2022-086 erabakia, ,

Kontuan izanik hautetsi zenbaitek bide batzuen izenak aldatu nahi dituztela,

Kontuan izanik honi erantsia zaion herriko bide guztien izendapenen zerrenda.

Herri Biltzarrak, Magis jaunaren azalpenak eta Auzapezaren azalpen osagarriak entzunik eta deliberaturik, bozken gehiengoarekin:

ERABAKI DU bide, plaza guzietan, izan pribatu nola publiko, erantsia den taulako izenak ukanen dituztela.

AGINDU DIO AGINDU DIO, Auzapezari ekintza horren egiteko izapide eta formalitate guzien egitea, besteak beste herriko bideen plano eta sailkapen taula eguneratzea.

BAIMENA EMAN DIO, Auzapezari izendapen berrien egikaritzeko izapideen egiteko (deialdiak, zutoinen erostea, izen-plakak...)

Kontra bozkatu dute: Peio Etxeleku eta Jean-François Lacosta jaunek.

HITZ HARTZEAK:

Jean-Noël Magis jaunak adierazi du bideen izendapenak lantzeko hautetsi talde txiki bat osatu zela, bereziki 247 bideetatik 15entzat. Zehaztu du Bixente Goytinok iradoki zuela Euskaltzaindiarengana jotzea, zeinak Jean-Baptiste Coyos baitu ordezkari. Honek zehaztu du frantseseko izenak herriaren eskumenekoak direla baina euskarazko izenek hainbat arau berezi bete behar dutela. Aldaketa txikiak izan dira, gehien bat hizkuntzalaritza xehetasunen ingurukoak. Bide izenetan egin dira 15 aldaketa nagusiak. Bideen batzordeak aldaketa horien inguruan eztabaidatu du Herri Biltzarrean aurkeztu aitzin.

Peio Etxeleku jaunak tristezia adierazi du udalaren erabaki horri buruz, lau arrazoirengatik. Lehenik, deitoratu du lehendik aho batez hartu erabaki bat aldatzea, eta halako jokabideak herriko etxe batean ez zaizkio normalak iruditzen.

Bigarrenik, etsipena adierazi du, zeren bera batzorde horretaz arduratzen zenean ortografia aldaketak Auzapezarekin aipatu baitzituen, zeinak argudiatzea ulertu eta onartu baitzuen.

Hirugarrenik pena du euskararen inguruan dauden polemikengatik. Euskara itzaltzeko zorian den hizkuntza dela erran du eta nortasunaren adierazle nagusi hori zaindu behar dela. Laugarrenik, izen berezien ortografia errespetatu behar dela azpimarratu du, baita euskaraz ere, eta Herri Biltzarrak euskarazko izenen idazkera aldatzeko hartu duen erabakia kritikatu

du. Zehaztu du, Euskaltzaindiak printzipio zientifikoak segitzen dituela euskararen ortografiarentzat, eta deitoratu du Kanbo herriak beste modu batera idazteko erabakia hartu izana. Atsekabeturik agertu da hartu diren erabakiengatik eta izan dituen eztabaida mingarriengatik. Azkenik, adierazi du Euskaltzainburuarekin harremanetan sartzeko asmoa duela, haren iritzi ofiziala ukateko, eta erabakia gibelatzea eskatu du.

Auzapezak Euskaltzaindiaren gomendioei buruzko argudioak eta bideen izendatzea izan ditu aipagai. Zehaztu du ez direla Euskaltzaindiarengana joan hautu berezi bat lehenesteko, baizik eta haren gomendioak segitzeko. Harridura adierazi du oraingo erabakiaz egiten den interpretazioaz, lehenago solastu zenaren kontrara. Oroitarazi du bide izenen gutxiengo bat, %6, eguneratu direla, eta aldaketa horiek justifikatu ditu euskarazko ortografia errespetatzeko xedearekin baina aldi berean ñabardurak ekarriz. Auzapezak azpimarratu du batzordeko eta lan taldeko kideak inplikatu direla lan horretan. Bukatzeko, oroitarazi du bilkuretan eman diren iritzi eta jarrerak kontuan hartu direla erabaki honetan.

Vincent Goytino jaunak insistitu du bideen batzordearen lanetan euskararentzako begirunea eta errespetua izan dutela. Adierazi du euskararentzat hartu diren erabakiak Coyos jaunaren aginduak betetzen dituztela, baina frantsesezko bertsioan askatasun zenbait hartuz. Azaldu du izen batzuk frantsesez mantentzeko hautuak logika bat segitzen duela. Adibidez, Celhaya etxearen izenaren kasuan ez dela deus mendragarririk. Azpimarratu du ere garrantzitsua dela lehengo ohiturak kontuan hartzea, eta zehaztu du izen berriei dagokienez parte handi bat euskaraz izendatu direla, euskarazko idazkera errespetatuz, eta frantsesezko izendapenek euskarazko ortografia segituko dutela. Bukatzeko, berretsi du euskara errespetuz hartzen dutela.

Peio Etxeleku jaunak erabakia gaitzetsi du eta errespetu falta ikusten du. Batzordean izenak eta ortografia proposaturik, ez zaio egokia iruditzen frantses jatorriko izenak Euskaltzaindiaren arauen arabera idaztea euskarazko bertsioetan. Erabaki horren kontra bozkaturiko du eta gelatik aterako da laborariekiko elkartasuna adierazteko, azpimarraturik garrantzitsua dela klima aldaketaz eta zoruen artifizializazioaz eztabaidatzea.

Pertsona batek galdetu du zer izen eman zaion Behereko Plazako HLM etxebizitza lagunduko erresidentziaren karrika itsuari?

Vincent Goytino jaunak zehaztu du izena ez dela aldatu eta « Oiloa » izaten segituko duela

Zerbitzu Teknikoetako Zuzendariak oroitarazi du bi bilkura publiko izan direla biztanleekin bide izenen inguruan solasteko Bilkura horietako bat Behereko Plazari buruzkoa zen, eta bestea Kanbo Gainarentzat. Beraz, elementu guzti horiek bilkura publikoetan aipatu ziren.

Publikoko pertsonak ezadostasuna adierazi du.

Auzapezak azpimarratu du publikoak ez duela gai honetan esku hartu beharrik ez eta Marieniarenean ere.

Publikoko pertsonak erran du panela ezarri bezain laster berak kenduko duela.

Peio Etxeleku eta Jean-Francois Lacosta jaunak gelatik atera dira

Bi biltzarkideak joanik quoruma oraindik betetzen denez Herri Biltzarraz zilegitasunez erabaki dezake.

006 – Herriko bideak: herriko bideen sailkapen taularen eguneratzea.

ERABAKIA:

Magis jaunak adierazi du:

Ikusirik, Herri Biltzarrak 2023ko abenduaren 12an herriko bide guztien izendapenari buruz hartu erabakia,

Herriko bideen sailkapen taula eguneratu behar da.

Herri Biltzarrak, Auzapezaren azalpen osagarriak entzunik eta eztabaidaturik,

ONARTU DU honako erabakiari erantsia zaion herriko bideen sailkapen taula.

AGINDU DIO Auzapezari ekintza horren burutzeko behar diren izapide guztien egitea eta besteak beste katastroko zerbitzuei aldaketan berri ematekoa.

007 – Euskal Elkargoa: helbideratzearen eguneratzeko laguntza bateratu amankomunaren zerbitzuan bazkidetzea.

ERABAKIA:

Magis jaunak honakoa azaldu du:

Frantziako 2022ko otsailaren 21eko 2022—217 legeak (Ioi 3DS) diferentziazioari, deszentralizazioari eta deskontzentrazioari buruzkoa, helbideen kudeaketa Herrien eskumena dela dio. Zirkulazioari irekiak diren bide publiko eta pribatuak izendatzera eta zenbakitzera behartzen ditu. Helbideratzea, Base Adresse Locale (BAL) deituriko estandarren arabera zehaztua da. Herri bakoitzaren BAL delakoak Frantzes estatuaren datu base nazionala elikatzen du.

Helbideak egunera atxikitzea zerbitzu eta politika publikoen eramateko garrantzitsua da, baita bertako herritar eta enpresentzat. BAN deituriko Frantziako datu base nazionala Open Data modukoa denez, helbideak erabili behar duen orok erabil dezake: sorospen zerbitzuak, posta banaketa zerbitzuak, erakunde publikoak, enpresa pribatuak eta abar. Erreferentziazko datu base hartan helbideak egunera atxikitzearen helburua da administrazio ekintzen gardentasuna eta sinplifikazioa ahalbidetzea.

Helbideen gaiak duen garrantziaz jabeturik, Euskal Hirigune Elkargoak lurraldeko herriak lan horretan laguntzea erabaki du, sostengu metodologiko eta tekniko batekin.

Hain zuzen, Euskal Hirigune Elkargoak laguntza eskatu duten herriak laguntzen ditu beren tokiko datu basea Frantziako datu base nazionalera hedatzen.

Elkargoko herrien gehiengo batek laguntza hori eskatu dio elkargoari. Gure herriaren azalera eta helbideen historia direla-eta, lan gaitza eta konplexua izan denez, helbide berrien lehen zerrenda bat adostu da eta hedatu.

Bizkitartean, eraikuntza berriak egin ahala, bideak ere aldatzen dira eta herriak, berak baitu helbideen eskumena, helbide horien eguneratzea zorrozki egin behar du.

Helbideen segipenean eta eguneratzean herrien laguntzeko, Euskal Elkargoak zerbitzu amankomun bat sortzea proposatzen du helbideen eguneratze lanentzat.

Zerbitzu horren eskaintzeko, Euskal Hirigune Elkargoak berak garatu eta finantzatutako Lurralde Informazio tresna eskura ezarri behar du batetik, eta bestetik helbideratze lanetan laguntza tekniko eta metodologikoa eskainiko duen langile baten mutualizatzea eskatzen du bestetik. Tresna horretan helbideen sortzea eta eguneratzea herriko langile batek egingen du, zeinak aitzinetik formakuntza bat egina izanen baitu.

Honakoak dira helbideen eguneratzeko zerbitzu amankomunaren eginkizunak:

Helbideen eguneratzeko zerbitzu amankomunak laguntza tekniko eta metodologikoarekin lagunduko ditu herriak:

- **Laguntza metodologikoa:**
 - o helbideen lehen bertsioaren egiteko, zerbitzuaren laguntza duten herrien artean adostu helbideratze doktrinaren aplikatzea eguneratzeen egiteko; laguntza duten eta honako hitzarmena izenpetu duten herriei eman zaien metodologia gidaren eguneratzea; araei buruzko azalpenak eta lurraldean dauden hiru hizkuntzen erabilpenari buruzkoak (euskara, gaskoia eta frantsesa);
 - o Frantzia mailako behaketa: helbideratzeen zuzenbide eta teknika bilakaeren segipena, solaskide lehenetsiaren posizionamendua, Frantziako eragileengandik ezagutua; Herriak laguntzen dituzten beste lurralde erakundeekin helbideei buruzko sare teknikoetan parte hartzea (esperientzia trukaketa, praktika egokiak, adituen ekarpenak)
- **Laguntza teknikoa:**
 - o Eguneratze tresnaren funtzionamendua, eta Frantzia mailako Datu Baserako hedapen prozesua behar bezala egiten direla zaintzea
 - o beharren arabera tresna teknikoki egokitzeko aukera,
 - o ahalmen tekniko, kontratuzko eta finantzazkoen arabera, Euskal Elkargoaren tresna beste Herri batzuenekin bateragarri izateko lan egitea (adibidez, eraikitze baimenen kudeaketa)
- **Herrien formakuntza eta tresnaren erabilzaile kontuen kudeaketa** (formakuntza jarraikia, herrietako langileen mugimenduak kontutan harturik)
- **Formakuntzaren ondotiko laguntza tekniko eta metodologikoa** (Herrien eskaeraren arabera laguntza sistema jarraikia, gida-liburuxken sortzea eta aberastea, tutorialak, ohiko galderak)
- **Helbideratzearekin interesa duten eragileekin koordinazioa** (Suhiltzaileak, DGFIP, Fibre64, Elkargoko hizkuntza politika saila, Elkargo barneko helbideen erabilzaileak (hondakinen bilketa, fiskalitatea, ura, ADS), **Herrien artean, amankomunean edo mugan dituzten bideentzat.**

Zerbitzu amankomunaren gidaritzan, helbideratze proiektuaz arduratzen den Lurralde Informazio zerbitzu buruaren ardura da. Herriek dute, beren eskumena dela-eta, helbideen eguneratzea egiten.

Langile bateratuak erabilzaile kontuen kudeaketa egingen eta tresnarako formakuntzak emanen dituzenez, Euskal Elkargoak zerbitzuan bazkide diren Herriei urrik eskura ezarriko die bere SIG datuen kontsultatzeko tresnarako sarbidea, baita oinarritzko datuak ere (aire eta satelite argazkiak, plano-fondoak, katastroa).

Formakuntza oro, laguntza bereziak, herrietako datuen argitaratzea eta txertatzea langile bateratu horrek soilik egiten ahalko ditu. Zerbitzu horiek SIG amankomun baten eskaintza batean ematen ahalko dira, etorkizunean, eta mutualizazioaren eskema zuzentzaileak finkatutako esparruan.

Hitzarmen bidezko bazkidetza 2023ko urtarrilaren 1etik goiti

2023ko urtarrilaren 1etik goiti, helbideen eguneratze sistema amankomunean bazkide izateko Herriek urte saria ordaindu beharko dute.

Herriaren eta Euskal Elkargoaren arteko elkar-engaiatzea hitzarmen bidez finkatu behar da.

Hitzarmenak iraupen mugagabea du, eta bi aldeek onartuz gero, emendekin bidez egokitzen ahalko da. Alde bakoitzak kontratua bertan behera alde-bakarrez uzteko eskubide osoa du.

Bazkidetza edozein momentutan egin dezake herriak. Bazkide saria urtekoa da. Urtero herriko biztanleriaren arabera egokituko da, kopuruek maila batetik bestera pasatzea eragiten badute.

Gaur egun beren SIG zerbitzu amankomunean txertaturik duten helbideen eguneratzeko tresna duten Hego Lapurdi Lurralde Eremuko 12 herrientzat, bazkideza sariak berezitasun hori kontuan hartzen du. Honela, laguntza metodologikoa eta proiektu koordinazio fakturatuko dira.

Taldea	Biztanle kopurua	Herri kopurua	Herri kopurua Hego Lapurdi eremuaz aparte	Herri kopurua Hego Lapurdi	Urteko banakako kostuaren %100 Hego Lapurdiz aparte	Urteko banakako kostua Hego Lapurdi
C 1	10 000 eta 60 000 artean	6	3	3	1 400 €	350 €
C 2	5 000 eta 9 999 artean	9	7	2	900 €	225 €
C 3	2 000 eta 4 999 artean	15	11	4	750 €	188 €
C 4	500 eta 1 999 artean	39	36	3	500 €	125 €
C 5	200 eta 499 artean	51	51		175 €	
C 6	0 eta 199 artean	38	38		75 €	
OROTAR A		158	146	12		

(Kontuan hartzen den biztanleria udal biztanleria deritzona da).

Ikusirik, Frantziako 2022ko otsailaren 21eko 2022—217 legea (loi 3DS), herri guztiei, zein izan ere beren neurria, helbideen eskumena aitortzen eta leku nola bide pribatu eta publikoak izendatzeko, eta hauen zenbakitzeko beharmendua ezartzen diona;

Ikusirik, Frantziako publikoaren eta administrazioaren harremanen kodeko L. 321—4 artikulua, bideen izendapena eta etxe eta bestelako eraikuntzen zenbakitzeari buruzko datuak herriek eskura ezarri behar dituztela dioena;

Ikusirik, Frantziako 2016ko urriaren 7ko Errepublika digital baten aldeko 2016-1321 legea, zeinak Datu Base Nazionale frantses errepublikaren erreferentziazko 9 datu baseen artean kokatzen duena, 2020ko urtarrilaren 1etik lizentzia irekian, eta 3DS legean erabiltzaileentzako erreferentziazko datu base bezala izendatzen dena;

Ikusirik, Frantziako Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorreko L.5211-4-2 artikulua, eskumen transferituz aparte, herrien arteko erakunde publiko batek eta horretan bazkide diren herri zenbaitek zerbitzuak amankomunean garatzeko gaitasuna dutela dioena;

Ikusirik, 2022ko abenduaren 10eko Elkargoko Batzorde Nagusiaren OJ 39 aho batez hartu erabakia, helbideen eguneratzeko laguntza zerbitzu amankomun baten sortzeko;

Ikusirik, honi erantsia zaion Euskal Hirigune Elkargoarekin izenpetu beharreko hitzarmena, helbideen eguneratzeko sistema bateratu amankomuneko zerbitzuko bazkide izateko.

Herri Biltzarrak, Auzapezaren azalpenak entzunik eta deliberaturik, aho batez:

ONARTU DU helbideratzeen eguneratzeko sistema amankomuneko bazkide izatea erantsia den hitzarmenak finkatu baldintzetan, hots elkargoko tresna digital baten eskura ezartzea, eta laguntza teknikoa, metodologikoa eta koordinazioa emateko langile baten mutualizatzea aurreikusten dituen, urtean 900 euroko sari baten truke.

BAIMENA EMAN DIO Auzapezari Euskal Hirigune Elkargoarekiko hitzarmen horren izenpetzeko

008 – Eraikin bat bertako Gurutze Gorriaren adarrari eskura ezartzeko hitzarmena.

ERABAKIA:

2020ko ekainaren 11ko erabakiz, Herri Biltzarrak herriko exekutiboari gauzen alokatzeko eskuordetza eman zion. Hori horrela, eta elkarreei dagokienez, herriko lokalak urririk eskura ezartzen zaizkien heinean, erabaki bat hartu behar da non Herri Biltzarrak baimena ematen baitio herriko exekutiboari eskura ezartzeko hitzarmenaren izenpetzeko. Hitzarmena honako erabakiari erantsia zaio.

Herriak eskumen klausula orokorra duenez, gizarte ekintzak burutu ditzake, jakinez gizarte ekintza Pirinio Atlantikoetako Departamenduaren eskumen-esparrua dela.

Honela, herriak bere biztanleriari gizarte laguntza eskaintzen dio. Hori dela-eta, gizarte xedeko lokal baten eraikuntzari ekin zion, Gurutze Gorriaren esku ezartzeko, 2022ko uztailaren 11ko erabakiz.

Horren ildotik, Auzapezak Herri Biltzarrari oroitarazi dio, herria « vestiboutique » izeneko lokal baten jabe dela Jendarmeriaren karrika itsuan, eta lokal hori Gurutze Gorriaren esku ezartzeko asmoa duela, elkarre horrek bere publikoari harrera egin diezaion, jantziak biltegitatu eta sal ditzan, besteak beste.

Lokalaren erabiltzeko hitzarmen bat izenpetuko dute, bereziki hartzailearen betebeharrak zehaztuz segurtasun, segurantza, erabilera arloetan, eta lekua eta eskura utzi diren altzariak hartu ziren bezala itzultzeko. Lekuaren egoera-akta kontradiktorioa egingen da.

Lokala urririk ezarriko zaio eskura elkarteari.

Herri Biltzarrak, Auzapezaren azalpen osagarriak entzunik eta eztabaidaturik,

ONARTU DU honakoari erantsia zaion eskura-ezartze hitzarmenaren xedapenak.

BAIMENA EMAN DIO, Auzapezari hitzarmen horren izenpetzeko eta baita horren egikaritzeko beharrezkoak diren agiri oro ere.

009 – Tenis zelai estaliak eta club-house-a tenis elkarrearen eskura ezartzeko hitzarmena.

ERABAKIA:

2020ko ekainaren 11ko erabakiz, Herri Biltzarrak herriko exekutiboari gauzen alokatzeko eskuordetza eman zion. Hori horrela, eta elkarreei dagokienez, herriko lokalak urririk eskura ezartzen zaizkien heinean, erabaki bat hartu behar da non Herri Biltzarrak baimena ematen baitio herriko exekutiboari eskura ezartzeko hitzarmenaren izenpetzeko. Hitzarmena honako erabakiari erantsia zaio.

Herriak bi tenis zelai estali eraikitzeari eta club-house-a berroneratzeko lanei ekin zien, eta lanak 2023a bukatu ziren. Kanboko Tenis elkarreak erabiliko ditu zelaiok, baita ikastetxeek (lehen maila eta kolegioa) eta herriko aisialdi guneak ere.

Horiek horrela, Didier Irastorza jaunak, auzapezordea, Herri Biltzarrari oroitarazi dio Herria Curutchague etorbideko bi lokalen jabe dela, hots bi tenis zelai estaliak eta club-house delakoa, eta lokal horiek Kanboko tenis elkarrearen esku ezarri nahi dituela, elkarre horrek tenisa praktika dezan, eta elkarrearen administrazioa eta logistika kudea ditzan.

Lokalaren erabiltzeko hitzarmen bat izenpetuko dute, bereziki hartzailearen betebeharrak zehaztuz segurtasun, segurantza, erabilera arloetan, eta club-house-a eta eskura utzi diren altzariak hartu ziren bezala itzultzeko. Lekuaren egoera-akta kontradiktorioa egingen da.

Lokala urririk ezarriko zaio eskura elkarteari.

Herri Biltzarrak, Auzapezaren azalpen osagarriak entzunik eta eztabaidaturik,

ONARTU DU honakoari erantsia zaion eskura-ezartze hitzarmenaren xedapenak.

BAIMENA EMAN DIO, Auzapezari hitzarmen horren izenpetzeko eta baita horren egikaritzeko beharrezkoak diren agiri oro ere.

010 – Enedis: pasatzeko eskubide baten hitzarmena.

ERABAKIA:

Magis jaunak, auzapezordea, adierazi du P26 tentsio baxuko sarearen eraberritzeko proiektuaren baitan, proiekturako pasaia eskubide bat ezarri behar dela, sintesia oharrarekin herri biltzarkide guzietan ukan duten planoaren arabera

Eraberritze proiektuak 4 euskarri (7, 9, 22 eta 23 zenbakiak) ezarriko ditu lur sailen bazterrean.

Euskarri horiei esker, lehengo airetiko hariak lekuz aldatuko dira.

Herri Biltzarrak, Magis jaunaren azalpenak entzunik eta deliberaturik, aho batez:

ONARTU DU honakoari erantsia zaion pasatzeko eskubidearen hitzarmenaren xedapenak.

BAIMENA EMAN DIO, Auzapezari hitzarmen horren izenpetzeko eta baita horren egikaritzeko beharrezkoak diren agiri oro ere.

011 – Alokairurako etxebizitza lagunduen erreserbatzeko eskubideen kudeaketa: errentatzaile sozialekiko kudeaketa hitzarmena.

ERABAKIA:

Hargain-Despéries andereak honakoa azaldu du:

Alokatzeko etxebizitza lagunduak eraikitzeko, herriak erreserbatze-eskubide bat hartu du errentatzaile sozialekin, dirulaguntza baten, mailegu berme baten edo terreno baten truke. Erreserbatze-eskubide horri esker herriak etxebizitzaren esleipenerako hautagaiak proposa ditzake.

Gaur egun, erreserbatze-eskubide horiek «stock kudeaketa» moduan kudeatzen dira, eta honela erreserbatzea duten etxebizitzak identifikatzen dira helbide bakoitzean.

Gaur egun ere, herriak 40 etxebizitza ditu erreserbatuak honako errentatzaile sozialekin: Office 64 (33 etxebizitza) eta Domofrance (7 etxebizitza).

2018ko azaroaren 23ko Frantziako ELAN 2018-1021 legeak eta 2020ko otsailaren 20ko 2020-145 dekretuak agintzen dute, aurrerantzean erreserbatzeak urteko fluxuan kudeatu behar direla, hots erreserbatzaile bakoitzari dagokiona berralokairurako eskuragarri diren etxebizitzaren ehunekoan adierazten dela.

Fluxu kudeaketak erreserbatzearen eta etxebizitza fisikoaren arteko lotura mozten du eta hautagaiak libratuko diren etxebizitzetara bideratuko dira.

2020ko otsailaren 20ko frantses dekretuak zehazten ditu arau horren gauzatzeko baldintzak eta errentatzailearen eta erreserbatzailearen arteko hitzarmena izenpetzea behartzen du. 2022ko otsailaren 21eko Frantziako 3DS 2022-217 arau berria betetzeko epemuga 2023ko azaroaren 24an ezarri zuen.

Euskal Hirigune Elkargoak bultzaturik, harmonizazio eta sinplifikazio xede batekin, lurraldeko errentatzaile sozialek erreserbak egiten dituzten tokiko erakundeentzako hitzarmen ereduak landu dute.

Erreserbatzeen fluxu kudeaketarako hitzarmenak arau horren gauzatzeko baldintzak finkatzen ditu: zein etxebizitza, urteko fluxuaren eta erreserbatzaileari dagokion zatiaren kalkulua, etxebizitzaren bideratzeko printzipioak...

Frantses lege horren arabera, hitzarmena soilik izenpetu ahalko da frantses estatuak, zeina lehentasunezko erreserbatzaile baita, dagokion prefekturako kopurua (30%) errentatzaileekin hitzartu eta gero.

Ikusirik, Frantziako Eraikuntza eta Bizitegien Kodea, eta bereziki haren L441-1, R441-5 eta R441-5-2 artikulua;

Ikusirik, 2018ko azaroaren 23ko Frantziako 2018-1021 legea, etxebizitzaren, antolamenduen eta digitalaren bilakatzeari buruzkoa;

Ikusirik, 2020ko otsailaren 20ko Frantziako 2020-145 legea, alokairurako etxebizitza lagunduen erreserbatzeen fluxu kudeaketari buruzkoa;

Ikusirik, 2022ko otsailaren 21eko Frantziako 2022—217 legea, diferentziazioari, deszentralizazioari eta deskontzentrazioari buruzkoa,

Ikusirik, erantsia den hitzarmena,

Eztabaidatu eta gero, Herri Biltzarrak, aho batez honakoa erabaki du:

ONARTU DU herrian diharduten errentatzaile sozialekin fluxu kudeaketarako hitzarmenak egiteko printzipioa,

BAIMENA EMAN DIO Auzapezari edo haren ordezkariari biko hitzarmenak eta beste edozein agiri izenpetzeko.

012 – Herria Pass Culture dispositiboan bazkidetzea eta partaidetza hitzarmena.

ERABAKIA:

Auzapezak Herri Biltzarrari jakinarazi dio Pass Culture Frantziako kultur ministerioak ezarri tresna dela, eta Pass Culture SAS sozietatea sortu zuela horren kudeatzeko. Telefono mugikorrenzako aplikazio batekin funtzionatzen du, zeina geolokalizatu daitekeen, eta belaunaldi berrien gizarte praktika eta kontsumo ereduak egokitua den. 2019an esperimentatu ostean, frantses estatu osora hedatu zuten 2021ean.

2022tik 15 eta 18 urte arteko gazteek ere eskuragarri dute, banakako eta taldeko eskaintza baten bidez eta Frantziako Hezkuntza Ministerioarekin partaidetzan.

Pass Culture SASk izen bereko aplikazioan txeratzen ditu egiturek plazaratzen dituzten kultur eskaintzak. Pass Culture-n bidez erreserbatuko diren herriko kultur eskaintzen balioa herriari

itzuliko dizkio Pass Culture SAS-ek, profesionalentzako finkatu erabilera baldintza orokorren arabera.

Banakako eskaintzarekin, 15 eta 18 urte arteko gazteek kreditu progresiboa izanen dute, adinaren arabera, eta bi urtez erabilgarri izanen da. Pass Culture tresnak gazteek kulturarako gustua garatzea eta arte esperientziak dibertsifikatzea du helburu; dirulaguntza bat eskaintzen du, baina baita ere lurraldeko arte eta kultur eskaintzari buruzko informazio bateratua. Pass Culture-n banakako eskaintzan sar daitezke, kultur guneen bisitak, kurtsuak eta tailerrak, ikuskizunetarako lekuak edo harpidetzak (ikuskizunak, zinema, festibalak), liburu eta DVD erosketak, diskoak, musika tresnak, bideo-jokoak, sareko harpidetzak.

2022ko urtarrilaren 1etik Pass Culture 18 urtetik beherako gazteei ireki diote, Arte eta Kultur Irakaskuntzari (AKI) baliabide berriak emateko xedez, jarduerak diruztatuz (ateraldiak, eskuhartzeak ikasgeletan), taldean eta tokiko irakaskuntza publikoko irakasle batek zainduririk.

Kanbo herria Pass Culture dispositiboan sartzearekin gure ikastetxeek Arnaga etxea bisita lezakete, taldetan. Halaber, eskaintza berriak ere egin genitzake, nahia duten irakasleei ikasgelan lantzen duten programaren araberrako proiektu pedagogikoak egin nahi badituzte.

Dispositibo horretan izen emateko hitzarmena izenpetu behar da Pass Culture SAS-rekin, honek baitu dispositiboaren finantza-kudeaketaren eginkizuna. Eranskinean den hitzarmenak honakoak aipatzen ditu:

- Pass Culture tresnaren printzipio nagusiak,
- Kanbo herriaren engaiamenduak «Partaide» gisa,
- SAS Pass Culture-en engaiamenduak,
- Hitzarmenaren urte beteko iraupena, urtez urte berez eraberritzen dena.

KONTUAN IZANIK

- Kanbo herriaren borondatea gazteek kulturarako gustua garatzeko eta arte esperientzien dibertsifikatzeko;
- Kanbo herriak SAS Pass Culture egiturak kudeatzen duen Pass Culture dispositiboarekin duen interesa;
- SAS Pass Culture sozietateak dispositibo horren bidez eginen diren salerosketak herriari itzuliko dizkiola.

IKUSIRIK, Frantziako Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorra eta bereziki L 2311-7 artikulua;
IKUSIRIK, Frantziako Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorra eta bereziki L 2121-29 artikulua;

Herri Biltzarrak, eztabaidatu eta gero, aho batez:

ONARTU DU Herriak Pass Culture dispositiboan izena ematea,

BAIMENA EMAN DIO Auzapezari, Pass Culture SAS sozietatearekiko partaidetza hitzarmena izenpetzeko, baita horrekin lotura duen dokumentu oro, honela herriko egituren eskaintzak Pass Culture tresnan txertatzeko.

013 – Segurtasunaren eta Delinkuentziaren Prebentziorako Tokiko Kontseiluaren sortzea (SDPTK/CLSPD).

Nicole Amestoy andereak, herri biltzarkidea, honakoa aurkeztu du:

Oieskeria eta delinkuentzia ekintzen emendatzea ikusirik, eta horiek herritarrentzako eta hautetsientzako kezka iturri izanik, lurralde erakundeentzako erronka gero eta handiagoa da segurtasunarena. Bere biztanleen segurtasun eta lasaitasun beharrei erantzuteko, Kanbo herriak

oieskeria eta segurtasun ezaren kontra borrokatzeko politika aktiboa ezarri du bere lurraldean. Politika horrek orekatua izan nahi du, prebentzioa, hezkuntza, bitartekaritza eta disuasioa uztartuz. Azken hilabeteotan politika horren lehen hiru etapak garatu dira:

- Udaltzain taldearen indartzea arduradun bat kontratatzearekin,
- Jendarmeriako segurtasun-erreferentearen laguntza herriko estrategia lantzeko,
- Bideozaintza sistema baten ezartzea.

Oraingoan, prozesu horren azken etapa gauzatzea proposatu da, Kanboko Segurtasunaren eta Delinkuentziaren Prebentziorako Tokiko Kontseilua (SDPTK/CLSPD) sortuz.

SDPTK batek segurtasunaren eta delinkuentziaren prebentzioko eragileen elkar-ezagutza eta sinergia ahalbidetzen ditu. Gertakariak aurreikusteko elkar-aditze organoa da (informazioak bildu, trukatu eta aztertu behar baitira) delinkuentzia eta segurtasun faktoreetan lehenbailehen eragiteko. SDPTK baten ezartzea ez da erronka makala. Hautetsientzat horrek suposatzen du segurtasunaren eta delinkuentziaren prebentzio tokiko politika bat garatzea, honakoetatik abiatuz:

- Urraspide kolektibo eta gardena,
- Diagnostiko partekatu bat eta lehentasunezko ekintza plan bat, Frantziako estatuko zerbitzuen, erakunde publiko eta pribatuen eta elkarten eskuhartzeen osagarritasuna indartzeko.

Segurtasun ezaren kontrako borrokarako eta prebentziorako elkar-aditze gune den instantzia horrek 4 eginkizun nagusi ditu:

- Tokiko eta Frantzia mailako delinkuentziaren prebentzio politikak eta zigor politikak eraginkorki artikulatzea, herriko etxearen eta Baionan den Frantziako prokuradorearen atreko lankidetzak estu bati esker,
- Zailtasunen gertaera-katea mugatzea, egoeraren diagnostiko oso bat eginez eta oieskeria eta delinkuentzia ekintzak burutzen dituzten gazte kalteberak nor diren jakinez,
- Eragile desberdinek elkarrekin diseinatu aterabide berritzaile, pragmatiko eta osagarriak ezarri.
- Garatuko diren ekintzen jarraipena eta ebaluazioa egitea, epe luzean baldin bada ere, eta frantses estatu mailan adostu eta Pirinio Atlantikoetako Departamenduan egokitu den delinkuentziaren kontrako estrategiaren iparra segituz.

Kanboko SDPTK-k ekintza ulergarriak, konkretuak, kolektiboak eta zehatzak garatzeko xedea du, diagnostiko batean oinarriturik eta eraginkortasuna ebaluatuz.

ANTOLAKETA

Auzapeza lehendakari izanik, SDPTK «herrietan segurtasun ezaren kontrako borrokaren eta delinkuentziaren prebentziorako lehentasunak adosteko esparrua da».

Eskubidezko kide diren Lehendakariak, Departamenduko Prefetak eta Frantziako Errepublikaren Prokuradoreaz edo haien ordezkariak gain, Kontseiluko kideak hiru kolegiotan banatzen dira:

Lehen kolegioan Auzapezak izendaturiko hautetsiak ditugu.

Bigarrenean frantses Estatuko zerbitzuburuak, edo haien ordezkariak, Prefetak izendaturik. Horietan ere kokatzen dira jendarmeriako zerbitzuak. Gainera, frantses errepublikako Prokuradorearekin adosturik, Prefetak adituak ere izenda ditzake.

Hirugarren kolegioan sartuko dira delinkuentzia kasuak bizi dituzten lanbideak, gizarte zerbitzuetako arduradunak eta prebentzioa, segurtasunean edo biktimen laguntzan jarduten duten elkarteetako ordezkariak.

Auzapezak ditu kide horiek izendatzen, ordezkatzeko duten egiturarekin adosturik behar balitz. Zehazten da, kolegio bakar batek ez dezakeela Kontseiluko kideen erdia baino gehiago ordezkatu.

Auzapezaren ordenantza batek finkatuko du SDPTKko kideen izendapena.

FUNTZIONAMENDUA

SDPTK gutxienez urtean behin bildu beharko da osoko bilkuran. Lehen bilkuran barne araudia diseinatu eta bozkatuko du. Gainera, tokiko segurtasun eta delinkuentziaren prebentzio politikaren norakoak finkatuko ditu. Auzapezak izendaturiko koordinatzaile batek animatuko du bilkura. Haren zeregina izanen da informazio trukaketa, segurtasunaren eta delinkuentziaren prebentzio eragileen eta partaideen arteko hitzartzea ahalbidetzea, eta SDPTKko kideen onespenearekin tokiko ekintza plana garatzea.

IKUSIRIK, Frantziako Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorra eta bereziki L.2211-1etik L.2211-5era, L.5211-59 eta D.2211-4 artikulua

Ikusirik, 2007ko martxoaren 5eko Frantziako 2007-297 legea, delinkuentziaren prebentzioari buruzkoa,

Ikusirik, 2022ko uztailaren 17ko Frantziako 2022-999 dekretua, lurraldeko delinkuentziaren prebentziorako eta kontra borrokatzeko segurtasun eta lankidetzaren dispositiboak,

Kontuan izanik, Segurtasunaren eta Delinkuentziaren Prebentziorako Tokiko Kontseiluaren sortzea (SDPTK/CLSPD) dela segurtasun ezaren eta delinkuentziaren prebentzio eta borrokarako lehentasunak jasotzen dituen esparru adostua,

Kontuan izanik, garrantzitsua dela, Herri Biltzarrarentzat, bere lurraldean daraman oieskeriaren eta segurtasun ezaren kontrako borroka aktiboko politikan Segurtasunaren eta Delinkuentziaren Prebentziorako Tokiko Kontseiluaren sortzea (SDPTK/CLSPD), zer ikustekorik duten erakunde publiko eta pribatuen artean segurtasun ezaren prebentziorako eta borrokarako lehentasun partekatutako zehazteko,

Herri Biltzarrak, Auzapezaren azalpen osagarriak entzunik eta eztabaidaturik,

ONARTU DU Segurtasunaren eta Delinkuentziaren Prebentziorako Tokiko Kontseiluaren sortzea (SDPTK/CLSPD).

BAIMENA EMAN DIO Auzapezari, instantzia horren gidatzeko eta haren funtzionamenduari loturiko dokumentu oro izenpetzeko.

HITZ HARTZEAK:

Auzapezak herri biltzarkideei azaldu die nola osatu diren hiru kolegioak. Lehen kolegioan bertako hautetsiak daude, eta izen batzuk jadanik proposatu ditu. Erran du ere oposizioak leku bat erreserbatua duela, eta oposizioko hautetsi batek beteko duela jarlekua kontseiluan parte hartzeko asmoa baldin badute. Bigarren kolegioan Frantziako estatuaren ordezkariak dira, Prefetak izendatu beharrekoak. Hirugarren kolegioan bertako profesionalak izanen dira, hala nola udaltzainburua eta ikastetxeetako zuzendariak. Auzapezak zehaztu du lehen kolegioko kideak jada izendatu dituela, baina edozein iradokizun hartzeko prest dela.

014 – Hilerria: utzikeria egoeran diren behin betiko kontzesioen berriz hartzearen lehen zatia.

Auzapezak adierazi du hainbat biziosoko hilobi kontzesio argiki abandonatuak direla.

Egoeraren zuzentzeko, eta abandonatuak diren lekuak berreskuratu ahal izateko, Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorren arabera kontzesioen berreskuratzeko prozedura bideratu behar da, haren L.2223-17 eta L. 2223-18 artikuluen arabera, eta araudiari dagokionez R.2223-12 eta R. 2223-23 artikulua.

Kontzesioen berreskuratzeko prozedura luzea eta korapilotsua da, eta jadanik halakorik egin zen 2015eko irailaren 2 eta 4an (abandonatze egoera ikusi zen lehen eguna) 22, kontzesioentzat.

Prozedura horren zati bat arauaren eta legeen arabera burura eramana izan denez, Herri Biltzarrari eskatu dio honako kontzesioen berreskuratzeaz deliberatzea:

- 319. zkia, 8. lerroa, 10. zkia - 785. zkia 11. lerroa, 2. zkia
- 321. zkia, 8. lerroa, 11. zkia - 282. zkia, 11. lerroa, 11. zkia
- 955. zkia, 16. lerroa, 4. zkia - 1005. zkia, 13. lerroa, 14. zkia
- 1440. zkia, 16. lerroa, 18. zkia - 293. zkia, 13. lerroa, 18. zkia
- 911. zkia, 7. lerroa, 19. zkia - 998. zkia, 13. lerroa, 22. zkia

Berreskuratze horren ondotik Auzapezak banakako berreskuratze ordenantzak egiten ahalko ditu, herrira itzuli terrenoak libratu eta 30 urteko kontzesioak eskaintzeko.

Berreskuratuko diren hilobietako hil-hondarrak herriko hezurtegira eramanez dira, hilerriko beste hondakinak (harriak, plakak, inguruak, monumentuak,...) bertatik kenduko dira, hilobien egoera aztertuko da eta Herri Biltzarrak salmenta prezioak finkatuko ditu.

Laster bigarren kontzesio multzo batekin ber gauza egingen da (hemendik urte bukaera artean egoeraren ohartzea egin behar) eta aldiberean bukatutzat emanen da lehen zati hau.

Dagoeneko, hilerrien zenbait lekutan identifikatu ditugu abandonatze egoeran dauden hilobiak (besteak beste hilobi militarren ondokoak). Horretarako, 2022ko agorriaren 5ean 2022-1127 dekretua hartu zen, zeinak hilerrietako zenbait arau finkatzen baititu, Frantziako 2022ko otsailaren 21eko 2022—217 diferentziazioari, deszentralizazioari eta deskontzentrazioari buruzko legea aplikatuz, tokiko ekintza publikoaren sinplifikatzeko xedapenak ematen dituen prozeduraren iraupena urte batera mugatuz.

Ikusirik, Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorreko L. 2223-17, L. 2223-18, R. 2223-12tik R. 2223-23rako artikulua,

Kontuan izanik, aipagai diren kontzesioak hogeita hamar urte baino gehiago dutela, azken ehorzteak orain dela 10 urte baino gehiagokoak direla, eta egiazko abandonatze egoeran daudela, abandonatze egoera bitan egiaztaturik hiru urteko tarte batekin,

Kontuan izanik, egoera hori kontzesioetako onuradunen engaiamenduaren urraketa baten ondorioa dela, zeintzuek egoera onean atxiki behar baitzituzten, eta gainera horrek hilerrien itxurari kalte egiten diola,

Herri Biltzarrak, Auzapezaren azalpenak entzunik eta deliberaturik, aho batez:

ERABAKI DU aipagai diren eta abandonatze egoeran diren kontzesioak herriak berreskuratuko dituela,

BAIMENA EMAN DIO, Auzapezari:

- kontzesio horien berreskuratze ordenantza bat egiteko ekintza horri buruzko informazioa indarrean diren araudien arabera bermatuz,
- libratuko diren terrenoak 30 urteko kontzesioetarako eskuragarri ezartzeko,
- hartu den erabakia egikaritzeko beharrezkoak diren neurrien hartzeko.

015 – Hilerria: Zazpi hilobi berriren prezioaren finkatzea.

ERABAKIA:

Auzapezak honakoa aurkeztu du:

Kontuan izanik, herriko hilerrian bi lekuko hiru hilobi eta lau lekuko lau ezartzen ari direla.

Herri biltzarrak hilobi berri horien salneurria finkatu behar du, eskaerak izanen direnean erantzun ahal izateko.

Kontuan izanik zenbat kostatzen den hilobi bakoitza egitea, honako banakako prezioa finkatzea proposatu du:

- 2 200 € bi lekuko hilobientzat
- 3 300 € lau lekuko hilobientzat

Herri Biltzarrak, eztabaidatu eta gero, aho batez:

HONELA FINKATU DU: Hilobi bakoitzaren salmenta prezioa:

- bi lekuko hilobia: 2 200 €
- lau lekuko hilobia: 3 300 €

BAIMENA EMAN DIO Auzapezari horretarako izapide oro egiteko eta dagokion dokumentu oro izenpetzeko.

016 – Essor Cycliste Basque lasterketa: 2024ko hitzarmena.

Irastorza jaunak, auzapezordea, Herri Biltzarrari proposatu dio Auzapezari baimena ematea 2024ko Essor Cycliste Basque lasterketaren antolatzeko izen bereko elkartearekin hitzarmenaren izenpetzeko:

Lasterketaren nondik norakoak:

Errobiko Zirkuitua (Zuraide/Kanbo), 2024ko otsailaren 4an, igandearekin, abiatzea 14:00an Zuraidetik, 25 kilometroko 4 itzuli eginez Uztaritze, Kanbo eta Ezpeletatik.

Dirulaguntza eskaera: 2 000 €

Helmuga: Kanbo, Sorhainde plaza parean, Edmond Rostand hiribidean.

Azalpenak entzun eta eztabaidaturik, Herri Biltzarrak aho batez:

ABAIMENA EMAN DIO, Auzapezari Essor Cycliste Basque elkartearekin 2024ko otsailaren 4an iraganen den «Errobiko itzulia» lasterketaren antolatzeko hitzarmenaren izenpetzeko,

ERABAKI DU, Essor Cycliste Basque elkarteari 2 000 €ko dirulaguntza ematea.

017 – 2024ko urtarrilaren 1eko salneurriak.

017A – Herriko apartamentuen alokairu sariak.

ERABAKIA:

Aizpuru andereak, auzapezordea, proposaturik eta eztabaidatu eta gero, Herri Biltzarrak, aho batez,

Honela FINKATU DITU, herriko apartamentuen alokairu sariak:

- San Josepe etxea (F3 txikia): 508 € hilabetean, 2024.01.01etik goiti
- San Josepe etxea (F3): 767 € hilabetean, 2024.09.01etik goiti
- Lehen mailako eskola publikoa: 643 € hilabetean, 2024.02.01etik goiti
- Apezetxea: 349 € urtean, 2024.01.01etik goiti
- Behereko plazako eskola: 527 € hilabetean, 2024.03.09tik goiti
- Denentzat zentroa 1: 637 € hilabetean, garajea: 48 € hilabetean, 2024.03.17tik goiti
- Denentzat zentroa 2: 534 € hilabetean, garajea: 48 € hilabetean, 2024.01.01etik goiti
- Poupel karrikako etxe juntatua 1: 800 € hilabetean 2024.09.01etik goiti
- Poupel karrikako etxe juntatua 2: 773 € hilabetean 2024.01.01etik goiti
- Turismo Bulegoa (1.estaia): 618 € hilabetean 2024.01.01etik goiti
- Turismo Bulegoa (2.estaia): 472 € hilabetean 2024.01.01etik goiti
- Laborde etxea (1. estaia): 472 € hilabetean 2024.05.05etik goiti
- Laborde etxea (2. estaia): 472 € hilabetean 2024.09.01etik goiti
- Hilerriko zaindariarena: 217 € hilabetean 2024.01.01etik goiti
- Igerilekuko zaindariarena: 244 € hilabetean 2024.01.01etik goiti

017B – 2024ko leku eskubideen eta eremu publikoa okupatzeko salneurriak.

ERABAKIA:

Aizpuru andereak, auzapezordea, proposaturik eta eztabaidatu eta gero, Herri Biltzarrak, aho batez,

Taxiak	90 € urtean
Ezker paretako aparkalekua	5,50 €/m ²
Sorhainde plaza	16 €/m ²
Herriko bestak	8 €/m ² salbu braderia egunean
Karpa (ikusbizidunak barne)	< 30 m ² : 65 € egun batentzat + 10 € egun gehigarri bakoitzeko
Salmahaia	> 30 m ² : 65 € egun batentzat + 2 € m ² gehigarri bakoitzeko 30 m ² tik goiti + 10 € egun gehigarri bakoitzeko
	Forfaita: 25 € eguneko
Eremu publikoaren okupatzea	

<p>a) Terrazak - Jatetxeak - Edari saltzaileak</p> <p>b) Apalak, erakusmahaiak, karta postalak, merkealdiak, zintzilikagailuak (jantziak)</p> <p>c) JAKI hondagarrien erakusmahaiak (fruitu, barazki, lore...)</p> <p>d) Iragarki panelak</p>	<p>77 € m²ko eta urteko 66 € m²ko eta urteko</p> <p>56 €/elementu/urte lehen biak, gehi 33 € elementu gehigarri bakoitzeko, orotara 4 elementutara mugatua</p> <p>36 € metro bakoitz urtean</p> <p>89 € urtean (m² 1 gehienez)</p>
---	---

017C – 2024ko hatu merkatuaren salneurriak.

ERABAKIA:

Aizpuru andereak, auzapezordea, proposaturik eta eztabaidatu eta gero, Herri Biltzarrak, aho batez, honela finkatu ditu 2024ko urtarrilaren 1etik goitiko hatu merkatuaren leku eskubide sariak

- 8 metro luze arte, sasotik kanpo (martxoa, apirila, maiatza, ekaina, azaroa, abendua): 5,60 €
- 8 metro luze arte, sasoiari (uztaila, agorrila, iraila, urria): 16 €
- metro luze gehigarri bakoitzeko: 2,40 €

017D – 2024ko Bixkotx Bestaren salneurriak.

ERABAKIA:

Aizpuru andereak, auzapezordea, proposaturik eta eztabaidatu eta gero, Herri Biltzarrak, aho batez,

Honela FINKATU DITU, euskal bixkotxaren bestako erakusketariak eremu publikoa okupatzeko sariak, 2024ko urtarrilaren 1ean indarrean sartuko direnak:

- - Arte ofizialeak oihal pean:
 - egun bat = 80 €
 - bi egun = 100 €
- - Arte ofizialeak beren materialarekin:
 - egun bat = 50 € 3 metrorentzat + 5 € metro gehigarri bakoitzeko
 - bi egun = 80 € 3 metrorentzat + 5 € metro gehigarri bakoitzeko
- - Ekoizleak oihal pean:
 - egun bat = 160 €
 - bi egun = 200 €
- - Ekoizle jaki saltzaileak:
 - egun bat = 50 € 3 metrorentzat + 5 € metro gehigarri bakoitzeko
 - bi egun = 80 € 3 metrorentzat + 5 € metro gehigarri bakoitzeko
- - Sukaldaritza elkarteak: 50 € bi egunentzako
- - Elektrizitate gastuak:

- egun bat = 18 €
- bi egun = 24 €
- Euskal bixkotxaren bestarentzako karrusela: 80 €ko saria
- Ahate arrantza eta beste: 50 €ko saria
- Ura behar duten karruselak (adibidez igerilekua): 20 €ko gainsaria

017E – 2024ko Arnagako salneurriak.

ERABAKIA:

Aizpuru andereak, auzapezordea, proposaturik eta eztabaidatu eta gero, Herri Biltzarrak, aho batez,

Honela FINKATU DITU, Arnagarako "Ikuskizun", 2024 urtarrilaren 1ean indarrean sartuko direnak:

- Prezio osoa: 18.00 €
- Prezio berezia (12-18 urte artekoak, ikasleak, langabetuak, elbarrituak): 13,00 €
- Urririk 12 urtetik beheiti.

017F – Gelen eta materialen alokatze sariak.

ERABAKIA:

Aizpuru andereak, auzapezordea, proposaturik eta eztabaidatu eta gero, Herri Biltzarrak, aho batez,

Honela FINKATU DITU, gela eta material alokairuen prezioak, 2024ko urtarrilaren 1ean indarrean sartuko direnak:

Kiroldegia

Kanboko elkarteen urrikako ekitaldiak	150 € + 150 € tapizak
Kanboko elkarteen ordainduriko ekitaldiak	300 € + 150 € tapizak
Kanbotik kanpoko elkarteen urrikako ekitaldiak	700 € + 150 € tapizak
Kanbotik kanpoko elkarteen ordainduriko ekitaldiak	1 500 € + 150 € tapizak
Pribatua	2 000 € + 150 € tapizak

Ezker pareta

Kanboko elkarteen urrikako ekitaldiak	75 €
Kanboko elkarteen ordainduriko ekitaldiak	150 €
Kanbotik kanpoko elkarteen urrikako ekitaldiak	500 €
Kanbotik kanpoko elkarteen ordainduriko ekitaldiak	1 200 €
Pribatua	1 300 €

Ezker paretaren eranskina eta dojoa

Kanboko elkarten urrikako ekitaldiak	30 €
Kanboko elkarten ordainduriko ekitaldiak	75 €
Kanbotik kanpoko elkarten urrikako ekitaldiak	90 €
Kanbotik kanpoko elkarten ordainduriko ekitaldiak	165 €
Pribatua	220 €

Zabalki

Kanboko elkarteak	90 €
Kanboko biztanleak	280 €
Kanbotik kanpokoak	600 €
Gordailua	500 €

Errugbiko egoitza

Kanboko elkarteak	90 €
Kanboko biztanleak	170 €
Kanbotik kanpokoak	250 €
Gordailua	500 €

Animazio aretoa

Irabazi asmorik gabeko animazioa	Urririk (500 €ko gordailua)
<u>Irabazi asmoko animazioa</u>	
• Kanboko elkarteak	60 € (500 €ko gordailua)
• Kanbotik kanpoko elkarteak	200 € (500 €ko gordailua)

Bilkura gela: Elorrimendi – Larrazkena – Zerbitzu gunea

Kanboko elkarteak	urririk
Kanbotik kanpoko elkarteak	29 €/ordu
Jabe elkartea eta pribatuak	29 €/ordu
Gordailua	500 €

Kirol gela barneko materialaren alokatzea

Mahai eta aulki - Kanboko elkarteak	urririk
Mahaiak eta aulkiak – Kanbotik kanpoko elkarteak	130 € mahaiak – 130 € aulkiak
Berogailua - Kanboko elkarteak	urririk + erregaia
Berogailua - Kanbotik kanpoko elkarteak	130 € berogailua + erregaia
Oholtza - Kanboko elkarteak	160 €
Gordailua	200 €

Kirol gelatik kanpoko materialaren alokatzea

Mahai eta aulki - Kanboko elkarteak	urririk
Berogailua - Kanboko elkarteak	urririk + erregaia

Oholtza - Kanboko elkarteak	160 €
Gordailua	500 €

Herriko gelen alokatzea lizentziadunik ez duten eta federazio bati atxikiak ez diren kirol eta kultur elkarteei

Kanboko elkarteak	7 €/ordu
Kanbotik kanpoko elkarteak	15 €/ordu

Beharrezkoa honako dokumentuen ematea:

- Elkartearen estatutuak (suprefeturako egiaztageria)
- Elkartearen segurantzza
- Irakaslearen diploma
- Prezioen taula
- Diru eta jarduera txostena.

017G – 2024ko mediatekaren salneurriak.

ERABAKIA:

Aizpuru andereak, auzapezordea, proposaturik eta eztabaidatu eta gero, Herri Biltzarrak, aho batez,

Honela FINKATU DITU, mediatekako salneurria, 2023 urtarrilaren 1ean indarrean sartuko direnak:

- Oihalezko zakua « Médiathèque de Cambo » dokumentuen eramateko: 1 €
- Bildumetatik ateratako dokumentuen saltzea: 1 €
- Berantagatiko isuna: 0,10 € dokumentu bakoitzeko eta egun bakoitzeko, itzuli behar zen egunetik 30. egunetik goiti

Fotokopia:

	A4	A3
Recto	0,25 €	0,30 €
Recto/verso	0,30 €	0,35 €

Harpidetza:

Kanboarrak edo Kanbon bigarren etxebizitza dutenak	Kanbotik kanpokoak	Turistak eta kuristak. Eraberritu daitekeen aste bateko izen ematea
Helduak: 13 € urtean	Helduak: 18 € urtean	Helduak: 2,50 € astean
Lizeotar, estudiante, langabetu eta gutxieneko laguntza sozialen onuradunak: 6 € urtean	Lizeotar, estudiante, langabetu eta gutxieneko laguntza sozialen onuradunak: 6 € urtean	
15 urtetik behera: urririk	15 urtetik behera: urririk	15 urtetik behera: urririk
Ikasgela, Aisialdi gunea, hartzaindegia: urririk	Ikasgela, Aisialdi gunea, hartzaindegia: 18€ urtean	

Etxe-haurtzainak (gazteria eremura mugatua): urririk	Etxe-haurtzainak: 18 € urtean	
Elkarteak, arta etxeak, zahar egoitzak: 13 € urtean	Elkarteak, arta etxeak, zahar egoitzak: 18 € urtean	
AIEC elkarteko kideak: urririk	AIEC elkarteko kideak: urririk	AIEC elkarteko kideak: urririk
Gordailua: bat ere ez	Gordailua: bat ere ez	Gordailua: 50 € egonaldi bukaeran itzuliko dena, mailegatutako dokumentuak itzultzean

HITZ HARTZEAK:

Didier Irastorza jaunak zehaztu du gehiengoko taldeak kirol aretoan antolatzen diren lotoen kopurua mugatu nahi duela, eskola opor bakoitzeko behin bakarrik, eskaerak anitz emendatzen ari baitira. Azaldu du eskola batek galdera pausatu duela parrokiak lotoak antolatzeari buruz, baina zehaztu du ez dela diskriminaziorik. Erabakiaren zio gisa aretoaren disponibilitatea aitzinatu du, bereziki kirol jarduerengatik. Halaber azaldu du udako oporretan ez dela lotorik antolatuko boluntarioak eskas direlako. Azkenik, zehaztu du mahaiak, aulkiak eta tapizen ezartzea elkartearen esku direla, baita horien guzrien biltzea ere, tapizak izan ezik, zeinak herriko langileek bildu eta garbituko baitituzte, 150 €ren truke.

018 – Besta Batzordea: 2024ko dirulaguntzaren aurrerakina.

ERABAKIA:

Yolande Huguenard andereak, auzapezordea, Herri Biltzarrari proposatu dio Gaineko Plazako besta komiteari 5 000 €ko dirulaguntza aurrerakin bat ematea 2024 urterako.

Herri Biltzarrak, eztabaidatu eta gero, aho batez:

ERABAKI DU Kanboko gaineko plazako besta komiteari 5 000 €ko dirulaguntza ematea 2024 urterako.

AGINDU DIO Auzapezari horren egikaritzeko behar diren izapide guztien egitea.

HITZ HARTZEAK:

Auzapezak besta komitearen kudeaketaz arrangura agertu du, bereziki 4 886 €ko zor bat dela-eta. Proposatu du besta komitea zor horren kitatzen laguntzea, baina laguntza hori ondoko urteko dirulaguntzaren aurrerakin bezala kontsideratzea. Gainera, musika banden parte hartze urriegia aipatu du. Iaz halako musika talde gutiegi bazen. Badirudi 2024ko bestetarako bik jada hor izanen direla baieztatu dutela, eta hirugarren bat ukateko bilaketa lanetan ari gara. Azpimarratu du tokiko komiteetan ari diren gazteen jardueren diru kudeaketa eta segipen koherentea egiteko zailtasunak urterik urte errepikatzen direla. Azkenik, orkestren kontratu garestiegiak aipatu ditu, eta horren parean arabarako diru sartzeak behar direla. Haatik, herriaren dinamizatzeko ahaleginak goraipatu ditu eta gazteek horretan esku hartzea bultzatzen du, baina aldi berean adierazi du beren engaiamenduak zorroztasun gehiago behar duela bereziki diruaren kudeaketan.

019 – 2023ko Programa Baimenak eta Ordainketa Kredituak (PB/OK - AP/CP).

ERABAKIA:

Elaine Aizpuru andereak, auzapezordea, honakoa aurkeztu du:

Frantziako Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorreko L2311-3 artikulua arabera, aurrekontu zuzkiduretako inbertsio gastutzat har daitezke Programa Baimenak eta Ordainketa Kredituak (PB/OK).

M57 kontularitza nomenklaturaren arabera, programa baimenen prozedurak (PB) onar daitezke inbertsio gastuentzat.

Programa baimenak (PB) dira inbertsioen finantzatzeko egiten diren gastuen muga gorena. Indarrean diraute, iraupen mugarik gabe, indargabetu artean eta aldatuak izan daitezke.

PB bakoitzari dagozkion Ordainketa Kredituak kontularitza ekitaldian zehar banatuko dira. Ordainketa Kredituak (OK) dira PB baten baitan eta urtean zehar egiten diren gastuen estaltzeko muga gorena.

1- Bidean diren PB/OK-en berrikustea:

Kontuan izanik, Herri Biltzarrak:

2022ko apirilaren 12ko erabakiz onartu zuela 2022tik 2024rako kontu ekitaldietan PBaren sortzea eta OKen banatzea,

- 2022ko abenduaren 21eko erabakiz onartu zuela PB/OKen berrikustea eta PB/OK berrien sortzea,
- 2023ko apirilaren 14ko erabakiz onartu zuela PB/OKen berrikustea, PB/OK baten (Fagalde) indargabetzea eta 4 PB/OK berri sortzea.

Honakoa proposatu du:

- PB batzuk 2024ra luzatzea (Hautzain eta Eskolen Karrika) eta OK banaketa horren arabera aldatzea, gaur egun gauzatua dena eta 2023ko abenduaren 31ra arte gauzatzeko gelditzen dena kontuan hartuz.
- Arnagako aitzinaldeen PB 29 000€z emendatzea,
- argiteria publikoarentzako OKen banaketa berrikustea,
- Ezker paretan bi ekitaldiren gainean banatzea, 2024 eta 2025,
- 2024ko terreno sintetikoa aurrez ikustea,

Herri Biltzarrari proposatu dio programa baimenak (PB) eta ordainketa kredituen (OK) banaketa berria onartzea, erantsiak diren taulen arabera:

2- PB/OK berri baten sortzea: Arnagako laranjatagia eta zalditegia:

Kontuan izanik ekitaldian zehar ekintza berri bat identifikatu dela,

Kontuan izanik ekintza hori PB/OK bidez aurkeztu daitekeela,

Herri Biltzarrari proposatu dio PB/OK berri baten sortzea eta aurretiaz ordainketa kredituen banaketa onartzea, erantsia den taularen arabera :

Eztabaidatu eta gero, Herri Biltzarrak, aho batez honakoa erabaki du:

ONARTU DU bidean diren PB/OKen berrikustea eranskineko taularen arabera

ONARTU DU PB/OK berrien sortzea, eranskineko taularen arabera

AGINDU DIO Auzapezari honako erabakiak egikaritzeko behar diren izapide guzien egitea.

HITZ HARTZEAK:

Jean-Noël Magis jaunak galdera bat egin du Organoaren Lagunak elkarteari onartu dirulaguntzari buruz.

Auzapezak erantzun dio elkarteak hitz eman zitzaion zenbatekoa ukan beharko lukeela, jakinez herriak 200 000 € esleitu duela horretarako. Zehaztu du herriak duela obra kudeantza eginen, eta BEZ berreskuratuko duela.

Isabelle Ayerbe andereak Thomas Ospitalekiko aurkezpen bilkuraren berri eman du, non organoaren funtzionamendua azaldu baitie parrokiako organo joleei.

Auzapezak elkartearen inplikazioa goraipatu du eta azpimarratu parrokiarekiko informazioa garrantzitsua dela.

020 – Aurrekontu nagusia: 1. erabaki aldatzailea.

ERABAKIA:

Kontuan izanik, 2023ko kontularitza ekitaldiaren aurrekontu nagusiko funtzionamendu eta inbertsio ataletako artikulua batzuetan aurreikusi diren kredituak txikiegiak direla, Aizpuru andereak, diru gaietarako auzapezordea, Herri Biltzarrari honako 1. erabaki aldagarria onartzea eskatu dio:

1 - FUNTZIONAMENDU SARTZEAK

Kapitulua	kontularitza artikulua		DM
70	7062	Kultur izaerako zerbitzuen zerga bereziak	63 000,00
	7078	Bestelako salgaiak (museoko saltokia besteak beste)	32 000,00
		DM Ataleko zenbateko orokorra 70. kapitulua	95 000,00
73	73111	Tokiko zerga zuzenak	180 000,00
	73118	Bestelako ekarpen zuzenak	1 495,00
	73123	Oinordetza eskubideen eta lur funtsen iragarki zergaren gaineko zerga gehigarria	107 927,12
	73133	Etxe hondakinen eta antzekoen bilketa zerga	4 000,00
	73141	Bukaerako elektrizitate-konsumoaren gaineko zerga	5 000,00
	73154	Leku eskubideak	3 000,00
	731721	Egonaldi zerga	-65 000,00
		DM Ataleko zenbateko orokorra 73. kapitulua	236 422,12
74	74111	FZO (Finantzazio Zuzkidura Orokorra)	3 445,00
	741121	DSR	17 116,00
	74712	Etorkizuneko enpleguak	-421,72
	74718	Frantses estatua / Beste	6 000,00
	7473	Pirinio Atlantikoetako Departamenduaren dirulaguntzak	1 500,00
	747888	Bestelako erakundearen parte hartzea	300,00
	7485	Agiri segurtatuentzako zuzkidura (pasaporteak)	5 370,00
	74888	FaLK esleipenak eta parte hartzeak / gizarte ekintza	28 800,00
		DM Ataleko zenbateko orokorra 74. kapitulua	62 109,28
75	752	Etekin higiezinak	4 000,00

	7588	Ez ohiko kudeaketa etekinak/ekintzak	-2 330,89
		DM Ataleko zenbateko orokorra 75. kapitulua	1 669,11
042	777	Inbertsio dirulaguntzen zatia	9 000,00
		DM Ataleko zenbateko orokorra 042. kapitulua	9 000,00
		DM OROTARA	404 200,51

2 - FUNTZIONAMENDU GASTUAK

Kapitulua	kontularitza artikulua	Azalpena	DM
011	6042	Zerbitzu eskaintzen erostea	30 000,00
	60623	AGAZeko elikadura	1 000,00
	60628	Bestelako hornikuntza ez biltegitatuak	1 000,00
	60632	Hornidura material txikiak	115 000,00
	60633	Errepideko hornikuntzak	5 000,00
	60636	Laneko jantziak	4 000,00
	6068	Bestelako erosgaiak (Arnagako saltokia)	31 764,99
	611	Zerbitzu eskaintza kontratuak	-70 000,00
	61521	Kirol zelaien mantenua	25 100,00
	615221	Eraikinen mantenua	20 000,00
	615231	Errepide eta sareen mantenua	20 000,00
	6156	Mantenua	12 000,00
	617	Ikerketak eta bilaketak	11 000,00
	6188	Bestelako gastuak	-250 000,00
	62268	Bestelako sariak, aholkulariak...	-5 000,00
	6228	Beste	17 000,00
	6231	Iragarpenak eta txertatzeak	4 000,00
	6232	Bestak eta ospakizunak	20 000,00
	6234	Harrera ekintzak	2 000,00
	6236	Katalogoak eta inprimakiak	7 000,00
	6241	Ondasunen garraioa	9 000,00
	6281	Bazkidetzak, orotariko partehartzeak	3 000,00
	6283	Lokalen garbiketa gastuak	2 880,00
	62878	Hirugarrenek egin gastuen itzultzea	10 000,00
	6288	Beste kanpoko zerbitzuak	15 000,00
	63512	Lur funtsen zergak	475,00
6355	Ibilgailuen gaineko zergak (matrikulatze agiria)	660,52	
		DM Ataleko zenbateko orokorra 011. kapitulua	41 880,51
012	6218	Beste kanpoko langileria	290 000,00
	6456	Familien gehikariarentzako konpentsazio Funtsari ekarpena	6 100,00
		DM Ataleko zenbateko orokorra 012. kapitulua	296 100,00
014	739118	Bestelako sariak eta ekarpen zuzenen itzultzea	20 664,00
		DM Ataleko zenbateko orokorra 014. kapitulua	20 664,00
65	657351	Euskal Elkargoari ordaintzea (GFP) / itzultzeak	500,00
	65741	Pertsona fisikoei itzultzeak	500,00

	65748	Zuzenbide pribatuko beste pertsonak (TBtik kanpo)	5 000,00
	65818	Kontzesio, brebeta eta abarrentzako zerga bereziak.	3 500,00
		DM Ataleko zenbateko orokorra 65. kapitulua	9 500,00
66	66111	Epean ordaindutako interesak	3 800,00
	66112	Eskuratzeko dauden interesak (ICNE)	15 256,00
		DM Ataleko zenbateko orokorra 66. kapitulua	19 056,00
042	6811	Amortizazio zuzkidurak	17 000,00
		DM Ataleko zenbateko orokorra 042. kapitulua	17 000,00
		DM OROTARA	404 200,51

3 - INBERTSIO SARTZEAK

Kapitulua	kontularitza artikulua	Azalpena	DM
024	024	Inbertsio uzteak	150,00
		DM Ataleko zenbateko orokorra 024. kapitulua	150,00
10	10226	Antolamendu zerga	30 818,71
		DM Ataleko zenbateko orokorra 10. kapitulua	30 818,71
13	1311	Frantses estatuaren dirulaguntza	-42 016,25
	1322	Akitania-Berri eskualdearen dirulaguntza (Arnaga)	-23 550,00
	13251	Euskal Elkargoaren dirulaguntza (tenis)	-62 456,50
	13461	DETR dirulaguntza (Ad'ap)	-73 149,16
	13462	DSIL (Arnaga)	-30 000,00
	1348	FFTren dirulaguntza (tenis)	-40 000,00
		DM Ataleko zenbateko orokorra 13. kapitulua	-271 171,91
040	28...	Amortizazio zuzkidurak	17 000,00
		DM Ataleko zenbateko orokorra 040. kapitulua	17 000,00
041	203...	Obra kontuetan txertatze gastuak eta ikerketa gastuen transferitzea	20 000,00
		DM Ataleko zenbateko orokorra 041. kapitulua	20 000,00
		DM OROTARA	-203 203,20

4 - INBERTSIO GASTUAK

Kapitulua	kontularitza artikulua	Azalpena	DM
20	2031	Ikerketa gastuak	-22 567,00
	2033	Txertatze gastuak	1 080,00
		DM Ataleko zenbateko orokorra 20. kapitulua	-21 487,00
204	2041582	Bestelako dirulaguntzak - eraikinak eta instalazioak	177 484,10
		DM Ataleko zenbateko orokorra 204. kapitulua	177 484,10
21	2117	Zelaia	3 500,00
	21318	Beste eraikin publikoentzako ekarpenak	3 235,00
	21351	Instalazio orokorrak - Eraikin publikoak	8 108,00
	21534	Elektrizitate sareak	-391 405,17
	21621	Ondasun historiko eta kultural higigarriak	2 763,00

	21838	Bestelako informatika materiala (hautetsien materialaz aparte)	14 803,00
	2188	Beste higiezin gorpuzdunak	123,87
		DM Ataleko zenbateko orokorra 21. kapitulua	-358 872,30
23	2313	Eraikuntzak	-8 560,00
	2315	Instalazio materiala eta tresneria teknikoak	-20 768,00
		DM Ataleko zenbateko orokorra 23. kapitulua	-29 328,00
040	139	Dirulaguntzen amortizatzea (berriz hartzea)	9 000,00
		DM Ataleko zenbateko orokorra 040. kapitulua	9 000,00
041	23...	Obra kontuetan txertatze gastuak eta ikerketa gastuen transferitzea	20 000,00
		DM Ataleko zenbateko orokorra 041. kapitulua	20 000,00
		DM OROTARA	-203 203,20

Eztabaidatu eta gero, Herri Biltzarrak, aho batez honakoa erabaki du:

ONARTU DU, gorago azaldua den erabaki aldagarria.

021 – Inbertsio gastuen kredituak antizipazioz irekitzea.

ERABAKIA:

Aizpuru andereak, auzapezordea, honakoa aurkeztu du:

2023 kontu ekitaldian herriak hainbat inbertsio programa abiatu ditu, eta horietatik eratorriak dira 2024 hasierako kontratu eta finantza engaiamenduak. Alta, 2024 hastapeneko finantza engaiamenduak ezin dira gauzatu, kontularitza ikuspegitik, inbertsio kredituak 2024ko hasierako aurrekontuan ireki ez diren bitartean.

Ondorioz, eta 2024ko Herri Biltzarrean bozkatuko diren zenbatekoak jakin gabe, eta zerbitzuek inbertsio atalean lanean segitu ahal izan dezaten 2024ko hasierako aurrekontua onartu arte, honakoa proposatzen dio Herri Biltzarrari:

- araudiarekin bat etorritz, inbertsio gastuetako 2023ko kontu ekitaldiko hasierako aurrekontuko kredituen %25 irekitzea, 2024ko aurrekontu nagusiko hasierako aurrekontua bozkatu bitartean.
- Iragan ekitaldiko aurrekontu nagusian ireki diren kredituen laurdenera arteko inbertsio gastuen engaiatzea, likidatzea eta agintzea baimentzea, kanpo gelditzen direlarik zorraren itzultzeko kredituak, Frantziako Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorrak agintzen duen bezala,

Aurkezpena entzun eta eztabaidaturik, Herri Biltzarrak aho batez:

ONARTU DU 2023ko aurrekontu nagusiko hasierako aurrekontuaren bozka egin bitartean, 2022ko kontu ekitaldiko inbertsio gastuen kredituak aurretiaz irekitzea.

BAIMENA EMAN DIO Auzapezari agiri oro izenpetzeko eta honako erabakiaren egikaritzeko izapide guztien egiteko.

022 – Artzamendi XBHAS: partaidetza hitzarmena.

ERABAKIA:

Irastorza jaunak, auzapezordea, oroitarazi du ARTZAMENDI XBHASen xedea dela eskola eta kolegioetako ikasleei bazkari zerbitzua eskaintzea, bazkariak sukalde zentral batean prestatuz. Honela, bazkariak hornitzen dizkie eskola garaian Kanboko ikasleei, 452 m²ko jangela batean, non 470 eserleku badiren (hots, 326 kolegioetako ikasleentzat eta 144 lehen mailako eta ama-eskolentzat).

Kanboko ikastetxe publikoak dira bazkari zerbitzu horren onuradunak.

ARTZAMENDI sindikatuak ahaleginak egiten ditu kalitatezko zerbitzua eskaintzeko, eguerdiko atsedenaldea eta bazkaria haurrentzako gauza berriak ezagutzeko eta plazerez egoteko momentua izan dadin.

Horretarako, hitzartu diren bi aldeetako bakoitzak eguneroko engaiamendua erakutsi behar du:

- ARTZAMENDI sindikatuak zerbitzua eskaintzen duenean (Jantegi izeneko jantegiko ikasleen harrera, ikasle, zaindari, irakasle eta ikastunentzako bazkari zerbitzua),
- Kanbo herriak bazkari zerbitzua ongi kudeatzeko laguntza eskaintzen du eskola garaian.

Horiek horrela, lankidetzaren ondik norakoak hitzarmen bidez finkatu behar dira, zerbitzuaren antolaketa urte osoan zehar bermatzeko.

Aurkezpena entzun eta eztabaidaturik, Herri Biltzarrak aho batez:

ONARTU DU ARTZAMENDI XBHASarekiko lankidetzaren hitzarmena, eranskinean den bezala.

BAIMENA EMAN DIO, Auzapezari hitzarmen horren izenpetzeko eta baita horren egikaritzeko beharrezkoak diren agiri oro ere.

Ez du bozkatu: Marie Aristizabal andereak.

023 – Langileria: 2023/2025 Formakuntza Plan Bateratua.

ERABAKIA:

Auzapezak oroitarazi du, Frantziako 1984ko uztailaren 12ko legeak, Lurralde Funtzio Publikoko langileen formakuntzari buruzkoa, tokiko erakundeak behartzen dituela beren langileentzako urteko edo urte anitzeko formakuntza plan baten egitera. Frantziako 2007ko otsailaren 19ko 2007-209 legeak, lurralde funtzio publikoari buruzkoa, beharmendua berretsi zuen.

Horiek horrela, Pirinio Atlantikoetako Lurralde Funtzio Publikoaren Kudeaketa Zentroak eta Frantziako Lurralde Funtzio Publikoaren Formakuntza Zentro Nazionalak (CNFPT) Pirinio Atlantikoek hartzen duten Ipar Euskal Herrirako formakuntza plan bateratu baten idazteko laguntza proiektua eraman dute.

Laguntza horren buruan, lurraldeko erakundeek tresna horren iraunaraztea erabaki zuten.

Proiektuari esker, CNFPTk formakuntzak antolatzen ahalko ditu gure lurraldean.

Eztabaidatu eta gero, eta Lurraldeko Gizarte Komite Amankomunaren iritzia aldekoa balitz, Herri Biltzarrak, aho batez honakoa erabaki du:

ONARTU DU Euskal Lurraldeko 2023-2025 hiru urteko Formakuntza Plan Bateratua.

024 – Langileria: Eremu Publikoaren Zaintza Langile (EPZL/ASVP) enplegu ez iraunkor baten sortzea.

ERABAKIA:

Auzapezak Herri Biltzarrari proposatu dio eremu publikoaren zaindari (EPZ/ASVP) enplegu ez iraunkor bat sortzea, denbora osokoa eremu publikoan polizia eginkizunen betetzeko. Segurtasun eta osasun publikoaren arauak zaintzeko eta prebentzioa egiteko polizia judizialaren eskumenak ditu. EPZren eginkizun nagusiak errepide kodearen, garraio kodearen, ingurumen kodearen eta segurantz kodearen urraketak atestatzean eta dagozkien isunak ezartzean datza. Merkatuetan eta hatu merkatuetan merkatariak kokatzen ditu eta dagozkien sariak biltzen ditu. Haren errola da merkatarien errolda egitea, eskuragarri diren lekuak esleitzea merkatua eta hatu merkatua baldintza onetan egin daitezen. Zoru publikoaren okupatzeko sarien fakturak eta horien ordainketa eskuratzeko ere egiten ditu.

Enpleguak 2024ko urtarrilaren 1etik ekainaren 30era iraunen du.

Asteko batezbesteko lanaldia 35 orenkoa izanen da.

Enplegua C kategoriakoa da.

Enplegu horren betetzeko, Frantziako Funtzio Publikoaren Kode Orokorreko L.332-23 1° artikulua xedapenak beteko dira, zeinek baimentzen baitute kontratupekoak kontratatzea denboraldiko jardura emendatzei aurre egiteko, 12 hilabeteko garai batean gehienez 6 hilabeteko denbora meta daitekeelarik.

Enpleguari 367ko indize gordina aplikatu daki.

Gainera, lanpostuak dagozkion sari eta ordainak izanen lituzke, lurralde teknikari laguntzaile mailako funtzionarioentzat finkatu bezala, eta 2018ko azaroaren 26ko Herri Biltzarrak deliberatu duenaren arabera.

Auzapezaren azalpen osagarriak entzunik eta deliberaturik, Herri Biltzarrak aho batez:

ERABAKI DU denbora osoko enplegu ez iraunkor bat sortzea:

- 2024/01/01etik 2024/06/30era: denbora osoko eremu publikoaren zaindari (EPZ/ASVP) enplegu ez iraunkorra
- enplegu horrek 367ko indize gordinari dagokion saria izanen duela.

BAIMENA EMAN DIO eranskinean den lan kontratua izenpetzeko,

ONARTU DU Auzapezaren proposamen guztiak,

ZEHAZTU DU kreditu nahikoa badela urteko aurrekontuan.

025 – Langileria: enplegu iraunkorren sortzea.

HITZ HARTZEAK:

Auzapezak azaldu du lanpostu iraunkorrez ari direla, eta jadanik existitzen direla kontratupeko enplegu bezala. Kontratupeko enplegu berri batek lanpostu hori berriz irekitzea behartzen du, baina definizioa ez da aldatzen.

025A – Langileria: denbora osoko koordinatzaile soziokultural enplegu iraunkor baten sortzea.

ERABAKIA:

Auzapezak Herri Biltzarrari proposatu dio denbora osoko koordinatzaile soziokultural enplegu iraunkor bat sortzea, herriko proiektuen metodologiaren inguruko lan estrategia zehaztu eta obratzeko, eta euskararen berreskuratze eta balioan-ertzate politika publikoa zehaztu eta obratzeko, aldiberean zerbitzu hori garatuz.

Enplegua B kategoriakoa da.

Enpleguen taula honela egokitua izanen da:

Enplegua: Koordinatzaile soziokulturala
Dago(z)kion gradua(k) Erredaktorea
2. klaseko erredaktore nagusia
1. klaseko erredaktore nagusia

Kategoria hierarkikoa: B

Aurrekontuko zenbatekoa: 1

Asteko batezbesteko lan denbora: denbora osoa

Kontratua egitekotan, kontratupeko kontratatzearen zioa: Frantziako funtzio publikoaren kode orokorreko L.332-8 2º artikulua.

Enplegua honako baldintzetan betetzen ahalko da:

- funtzionario baten kontratatzea Frantziako Funtzio Publikoaren Kode Orokorreko L.311-1 artikulua finkatzen duen printzipioa betez, zeinaren arabera, legezko salbuespenez aparte, departamendu, herri eta horien erakunde publiko administratiboetako enplegu zibil iraunkorrak funtzionarioek betetzen dituzte,
- baimen berezi gisa, Frantziako Funtzio Publikoaren Kode Orokorreko L.332-8 2º artikulua arabera, kontratupeko langilea izan daiteke, funtzioen izaerak eta zerbitzuaren beharrek justifikatzen badute, eta ezin izan bada funtzionariorik kontratatu mugikortasun bidez edo konkurtsoa lortu duten berrien artean,

Lan kontratuak, gehienez behin errepika daitekeen hiru urteko iraupenekoak izan behar dira, hots gehienez sei urte segidan. Sei urte horien buruan kontratua luzatzen bada, orduan erabaki arin batez mugagabea bilakatuko da.

Kontratupeko langile bat kontratatuko balitz, enpleguak 389 eta 707 arteko indize gordina izanen luke.

Hala balitz, lanpostuak dagozkion sari eta ordainak izanen lituzke, lurraldeko erredaktore mailako funtzionarioentzat finkatu bezala, eta 2018ko azaroaren 26ko Herri Biltzarrak deliberatu duenaren arabera.

Auzapezaren azalpen osagarriak entzunik eta deliberaturik, Herri Biltzarrak aho batez:

ERABAKI DU denbora osoko koordinatzaile soziokultural enplegu iraunkor baten sortzea.

- enplegua betetzeko funtzionario bat edo kontratupeko bat hartzen ahalko dela,
- kontratupeko langile bat kontratatuko balitz, enpleguak 389 eta 707 arteko indize gordina izanen lukeela.

BAIMENA EMAN DIO Auzapezari, eranskinean den lan kontratua izenpetzeko, kontratatze prozedura bukatzean kontratupeko langile bat kontratatzea hautatzen badu.

ONARTU DU Auzapezaren proposamen guztiak,

ZEHAZTU DU kreditu nahikoa badela urteko aurrekontuan.

025B – Langileria: denbora osoko Haurtzaro-Gazteria-Hezkuntza arduradun enplegu iraunkor baten sortzea.

ERABAKIA:

Auzapezak Herri Biltzarrari proposatu dio denbora osoko Haurtzaro-Gazteria-Hezkuntza arduradun enplegu iraunkorra sortzea, herriko hezkuntza proiektu orokorraren definizioan parte hartzeko, zerbitzuaren aurrekontua kudeatzeko, zerbitzuaren norabide estrategikoak zehazteko eta zerbitzuaren ekintza-kudeaketa eramateko: giza baliabideen kudeaketa, taldeen animazioa eta koordinazioa. Noizean behin, Haurtzaro-Gazteria-Hezkuntza arduradunak animatzailearen bat ordezka lezake, denbora labur batentzat, ordezkapen hori aurreikusia izan ez denean.

Enplegua B kategoriakoa da.

Enpleguen taula honela egokitua izanen da:

Enplegua: Haurtzaro-Gazteria-Hezkuntza arduraduna

Dago(z)kion gradua(k) Erredaktorea

2. klaseko erredaktore nagusia

1. klaseko erredaktore nagusia

Kategoria hierarkikoa: B

Aurrekontuko zenbatekoa: 1

Asteko batezbesteko lan denbora: denbora osoa

Kontratua egitekotan, kontratupeko kontratatzearen zioa: Frantziako funtzio publikoaren kode orokorreko L.332-8 2° artikulua.

Enplegua honako baldintzetan betetzen ahalko da:

- funtzionario baten kontratatzea Frantziako Funtzio Publikoaren Kode Orokorreko L.311-1 artikulua finkatzen duen printzipioa betez, zeinaren arabera, legezko salbuespenez aparte, departamendu, herri eta horien erakunde publiko administratiboetako enplegu zibil iraunkorrak funtzionarioek betetzen dituzte,
- baimen berezi gisa, Frantziako Funtzio Publikoaren Kode Orokorreko L.332-8 2° artikulua arabera, kontratupeko langilea izan daiteke, funtzioen izaerak eta zerbitzuaren beharrek justifikatzen badute, eta ezin izan bada funtzionariorik kontratatu mugikortasun bidez edo konkurtsoa lortu duten berrien artean,

Lan kontratuak, gehienez behin errepika daitekeen hiru urteko iraupenekoak izan behar dira, hots gehienez sei urte segidan. Sei urte horien buruan kontratua luzatzen bada, orduan erabaki arin batez mugagabea bilakatuko da.

Kontratupeko langile bat kontratatuko balitz, enpleguak 389 eta 707 arteko indize gordina izanen luke.

Hala balitz, lanpostuak dagozkion sari eta ordainak izanen lituzke, lurraldeko erredaktore mailako funtzionarioentzat finkatu bezala, eta 2018ko azaroaren 26ko Herri Biltzarrak deliberatu duenaren arabera.

Auzapezaren azalpen osagarriak entzunik eta deliberaturik, Herri Biltzarrak aho batez:

ERABAKI DU 2024ko urtarrilaren 1etik goiti, denbora osoko Hautzaro-Gazteria-Hezkuntza arduradun enplegu iraunkor bat sortzea,

- enplegua betetzeko funtzionario bat edo kontratupeko bat hartzen ahalko dela,
- kontratupeko langile bat kontratatuko balitz, enpleguak 389 eta 707 arteko indize gordina izanen lukeela.

BAIMENA EMAN DIO Auzapezari, eranskinean den lan kontratua izenpetzeko, kontratatze prozedura bukatzean kontratupeko langile bat kontratatzea hautatzen badu.

ONARTU DU Auzapezaren proposamen guztiak,

ZEHAZTU DU kreditu nahikoa badela urteko aurrekontuan.

025C – Langileria: denbora osoko animazio kargudun euskaldun enplegu iraunkor baten sortzea.

ERABAKIA:

Auzapezak Herri Biltzarrari proposatu dio denbora osoko euskarazko animazio kargudun enplegu iraunkorra sortzea, herriko mediatekaren funtzionamendu egokian parte hartzeko, eta elebiko animazio soziokulturalerako politika obratzeko.

Enplegua C kategoriakoa da.

Enpleguen taula honela egokitua izanen da:

Enplegua: Euskarazko animazio karguduna.

Dago(z)kion gradua(k) Animazio laguntzailea

- 2. klaseko animazio laguntzaile nagusia

- 1. klaseko animazio laguntzaile nagusia

Kategoria hierarkikoa: C

Aurrekontuko zenbatekoa: 1

Asteko batezbesteko lan denbora: denbora osoa

Kontratua egitekotan, kontratupeko kontratatzearen zioa: Frantziako funtzio publikoaren kode orokorreko L.332-14 artikulua.

Enplegua honako baldintzetan betetzen ahalko da:

- lurraldeko animazio laguntzaileen mailako funtzionario baten kontratatzea Frantziako Funtzio Publikoaren Kode Orokorreko L.311-1 artikulua finkatzen duen printzipioa betez, zeinaren arabera, legezko salbuespenez aparte, departamendu, herri eta horien erakunde publiko administratiboetako enplegu zibil iraunkorrak funtzionarioek betetzen dituzte,
- baimen berezi gisa, kontratupeko langile bat kontratatuz, Frantziako funtzio publikoaren kodeko L.332-14 artikulua arabera, zeinak baimentzen baitu kontratupeko langileak kontratatzea funtzionario bat kontratatu bitartean hutsik den lanpostu baten betetzeko.

Orduan, lan kontratua mugatua izanen da eta gehienez urte batekoa. Iraupena luzatzen ahalko da, gehienez orotara 2 urtera, funtzionario bat kontratatzeko prozedurak emaitzarik eman ez badu.

Kontratupeko langile bat kontratatuko balitz, enpleguak 367 eta 558 arteko indize gordina izanen luke.

Gainera, lanpostuak dagozkion sari eta ordainak izanen lituzke, lurralde animazio laguntzaile

mailako funtzionarioentzat finkatu bezala, eta 2018ko azaroaren 26ko Herri Biltzarrak deliberatu duenaren arabera.

Auzapezaren azalpen osagarriak entzunik eta deliberaturik, Herri Biltzarrak aho batez:

ERABAKI DU 2024ko urtarrilaren 1etik goiti denbora osoko euskarazko animatzaile kargudun enplegu iraunkor baten sortzea.

- enplegua betetzeko funtzionario bat edo kontratupeko bat hartzen ahalko dela,
- kontratupeko langile bat kontratatuko balitz, enpleguak 367 eta 558 arteko indize gordina izanen lukeela.

BAIMENA EMAN DIO Auzapezari, eranskinean den lan kontratua izenpetzeko, kontratatze prozedura bukatzean kontratupeko langile bat kontratatzea hautatzen badu.

ONARTU DU Auzapezaren proposamen guztiak,

ZEHAZTU DU kreditu nahikoa badela urteko aurrekontuan.

025D – Langileria: denbora ez osoko (astean 20 oren) lokalen mantenurako enplegu iraunkor baten sortzea.

ERABAKIA:

Auzapezak Herri Biltzarrari proposatu dio denbora ez osoko lokalen garbiketa kargudun enplegu iraunkor baten sortzea, herriko ondareko lokal eta azalaren garbiketa eta mantenu lanetarako beharrezkoa den lotura egiteko

Asteko batezbesteko lanaldia 20 orenekoa izanen da.

Enplegua C kategoriakoa da.

Enpleguen taula honela egokitua izanen da:

Enplegua: Lokalen garbiketa karguduna.

Dago(z)kion gradua(k) - Teknikari laguntzailea

2. klaseko teknikari laguntzaile nagusia

1. mailako teknikari laguntzaile nagusia

Kategoria hierarkikoa: C

Aurrekontuko zenbatekoa: 0,58

Asteko batezbesteko lan denbora: denbora ez osoa, astean 20 oren batez beste

Kontratua egitekotan, kontratupeko kontratatzearen zioa: Frantziako funtzio publikoaren kode orokorreko L.332-14 artikulua.

Enplegua honako baldintzetan betetzen ahalko da:

- lurraldeko teknikari laguntzaileen mailako funtzionario baten kontratatzea Frantziako Funtzio Publikoaren Kode Orokorreko L.311-1 artikulua finkatzen duen printzipioa betez, zeinaren arabera, legezko salbuespenez aparte, departamendu, herri eta horien erakunde publiko administratiboetako enplegu zibil iraunkorrak funtzionarioek betetzen dituzte,
- baimen berezi gisa, kontratupeko langile bat kontratatuz, Frantziako funtzio publikoaren kodeko L.332-14 artikulua arabera, zeinak baimentzen baitu kontratupeko langileak kontratatzea funtzionario bat kontratatu bitartean hutsik den lanpostu baten betetzeko.

Orduan, lan kontratua mugatua izanen da eta gehienez urte batekoa. Iraupena luzatzen ahalko da, gehienez orotara 2 urtera, funtzionario bat kontratatzeko prozedurak emaitzarik eman ez badu.

Kontratupeko langile bat kontratatuko balitz, enpleguak 367 eta 558 arteko indize gordina izanen luke.

Gainera, lanpostuak dagozkion sari eta ordainak izanen lituzke, lurralde teknikari laguntzaile mailako funtzionarioentzat finkatu bezala, eta 2018ko azaroaren 26ko Herri Biltzarrak deliberatu duenaren arabera.

Auzapezaren azalpen osagarriak entzunik eta deliberaturik, Herri Biltzarrak aho batez:

ERABAKI DU- 2024ko urtarrilaren 1etik, denbora ez osoko teknikari laguntzaile enplegu iraunkor baten sortzea, lokalen garbiketaz arduratuko dena, batez beste astean 20 orenkoa

- enplegua betetzeko funtzionario bat edo kontratupeko bat hartzen ahalko dela,
- kontratupeko langile bat kontratatuko balitz, enpleguak 367 eta 558 arteko indize gordina izanen lukeela.

BAIMENA EMAN DIO Auzapezari, eranskinean den lan kontratua izenpetzeko, kontratatze prozedura bukatzean kontratupeko langile bat kontratatzea hautatzen badu.

ONARTU DU Auzapezaren proposamen guztiak,

ZEHAZTU DU kreditu nahikoa badela urteko aurrekontuan.

025E – Langileria: denbora ez osoko (astean 22 oren) lokalen mantenurako enplegu iraunkor baten sortzea.

ERABAKIA:

Auzapezak Herri Biltzarrari proposatu dio denbora ez osoko lokalen garbiketa kargudun enplegu iraunkor baten sortzea, herriko ondareko lokal eta azalaren garbiketa eta mantenu lanetarako beharrezkoa den lotura egiteko.

Asteko batezbesteko lanaldia 22 orenkoa izanen da.

Enplegua C kategoriakoa da.

Enpleguen taula honela egokitua izanen da:

Enplegua: Lokalen garbiketa karguduna.

Dago(z)kion gradua(k) - Teknikari laguntzailea

2. klaseko teknikari laguntzaile nagusia

1. mailako teknikari laguntzaile nagusia

Kategoria hierarkikoa: C

Aurrekontuko zenbatekoa: 0,63

Asteko batezbesteko lan denbora: denbora ez osoa, astean 22 oren batez beste

Kontratua egitekotan, kontratupeko kontratatzearen zioa: Frantziako funtzio publikoaren kode orokorreko L.332-14 artikulua.

Enplegua honako baldintzetan betetzen ahalko da:

- lurraldeko teknikari laguntzaileen mailako funtzionario baten kontratatzea Frantziako Funtzio Publikoaren Kode Orokorreko L.311-1 artikulua finkatzen duen printzipioa betez, zeinaren arabera, legezko salbuespenez aparte, departamendu, herri eta horien erakunde publiko

administratiboetako enplegu zibil iraunkorrak funtzionarioek betetzen dituzte,

- baimen berezi gisa, kontratupeko langile bat kontratatuz, Frantziako funtzio publikoaren kodeko L.332-14 artikularen arabera, zeinak baimentzen baitu kontratupeko langileak kontratatzea funtzionario bat kontratatu bitartean hutsik den lanpostu baten betetzeko.

Orduan, lan kontratua mugatua izanen da eta gehienez urte batekoa. Iraupena luzatzen ahalko da, gehienez orotara 2 urtera, funtzionario bat kontratatzeko prozedurak emaitzarik eman ez badu.

Kontratupeko langile bat kontratatuko balitz, enpleguak 367 eta 558 arteko indize gordina izanen luke.

Gainera, lanpostuak dagozkion sari eta ordainak izanen lituzke, lurralde teknikari laguntzaile mailako funtzionarioentzat finkatu bezala, eta 2018ko azaroaren 26ko Herri Biltzarrak deliberatu duenaren arabera.

Auzapezaren azalpen osagarriak entzunik eta deliberaturik, Herri Biltzarrak aho batez:

ERABAKI DU- 2024ko urtarrilaren 1etik, denbora ez osoko teknikari laguntzaile enplegu iraunkor baten sortzea, lokalen garbiketaz arduratuko dena, batez beste astean 22 orenekoa

- enplegua betetzeko funtzionario bat edo kontratupeko bat hartzen ahalko dela,
- kontratupeko langile bat kontratatuko balitz, enpleguak 367 eta 558 arteko indize gordina izanen lukeela.

BAIMENA EMAN DIO Auzapezari, eranskinean den lan kontratua izenpetzeko, kontratatze prozedura bukatzean kontratupeko langile bat kontratatzea hautatzen badu.

ONARTU DU Auzapezaren proposamen guztiak,

ZEHAZTU DU kreditu nahikoa badela urteko aurrekontuan.

025F – Langileria: denbora ez osoko (astean 25 oren) lokalen mantenurako enplegu iraunkor baten sortzea.

ERABAKIA:

Auzapezak Herri Biltzarrari proposatu dio denbora ez osoko lokalen garbiketa kargudun enplegu iraunkor baten sortzea, herriko ondareko lokal eta azalaren garbiketa eta mantenu lanetarako beharrezkoa den lotura egiteko.

Asteko batezbesteko lanaldia 25 orenekoa izanen da.

Enplegua C kategoriakoa da.

Enpleguen taula honela egokitua izanen da:

Enplegua: Lokalen garbiketa karguduna.

Dago(z)kion gradua(k) - Teknikari laguntzailea

2. klaseko teknikari laguntzaile nagusia

1. mailako teknikari laguntzaile nagusia

Kategoria hierarkikoa: C

Aurrekontuko zenbatekoa: 0,71

Asteko batezbesteko lan denbora: denbora ez osoa, astean 25 oren batez beste

Kontratua egitekotan, kontratupeko kontratatzearen zioa: Frantziako funtzio publikoaren kode orokorreko L.332-14 artikulua.

Enplegua honako baldintzetan betetzen ahalko da:

- lurraldeko teknikari laguntzaileen mailako funtzionario baten kontratatzea Frantziako Funtzio Publikoaren Kode Orokorreko L.311-1 artikulua finkatzen duen printzipioa betez, zeinaren arabera, legezko salbuespenez aparte, departamendu, herri eta horien erakunde publiko administratiboetako enplegu zibil iraunkorrak funtzionarioek betetzen dituzte,
- baimen berezi gisa, kontratupeko langile bat kontratatuz, Frantziako funtzio publikoaren kodeko L.332-14 artikulua arabera, zeinak baimentzen baitu kontratupeko langileak kontratatzea funtzionario bat kontratatu bitartean hutsik den lanpostu baten betetzeko.

Orduan, lan kontratua mugatua izanen da eta gehienez urte batekoa. Iraupena luzatzen ahalko da, gehienez orotara 2 urtera, funtzionario bat kontratatzeko prozedurak emaitzarik eman ez badu.

Kontratupeko langile bat kontratatuko balitz, enpleguak 367 eta 558 arteko indize gordina izanen luke.

Gainera, lanpostuak dagozkion sari eta ordainak izanen lituzke, lurralde teknikari laguntzaile mailako funtzionarioentzat finkatu bezala, eta 2018ko azaroaren 26ko Herri Biltzarrak deliberatu duenaren arabera.

Auzapezaren azalpen osagarriak entzunik eta deliberaturik, Herri Biltzarrak aho batez:

ERABAKI DU- 2024ko urtarrilaren 1etik, denbora ez osoko teknikari laguntzaile enplegu iraunkor baten sortzea, lokalen garbiketaz arduratuko dena, batez beste astean 25 orenekoa

- enplegua betetzeko funtzionario bat edo kontratupeko bat hartzen ahalko dela,
- kontratupeko langile bat kontratatuko balitz, enpleguak 367 eta 558 arteko indize gordina izanen lukeela.

BAIMENA EMAN DIO Auzapezari, eranskinean den lan kontratua izenpetzeko, kontratatze prozedura bukatzean kontratupeko langile bat kontratatzea hautatzen badu.

ONARTU DU Auzapezaren proposamen guztiak,

ZEHAZTU DU kreditu nahikoa badela urteko aurrekontuan.

025G – Langileria: denbora osoko udaltzain enplegu iraunkor baten sortzea.

ERABAKIA:

Auzapezak Herri Biltzarrari proposatu dio denbora osoko udaltzain enplegu iraunkor baten sortzea, honako eginkizunen betetzeko.

Polizia judizialeko eginkizunak:

- Krimen eta delituen atestatzea,
- Auzapezaren ordenantzen urraketak isunez zigortzea,
- Errepide kodeko urraketak isunez zigortzea: errepide kontrolak, alkoholemia kontrolak...
- Ingurumen kodeko urraketak isunez zigortzea: karrikan garbitasuna, afixatze ez baimenduak...
- Gehiegizko arrabotsak isunez zigortzea,
- Eskuhartze bakoitzaren dokumentu profesionalen idaztea eta segiaraztea.

Polizia administratiboko eginkizunak:

- Delinkuentziaren bitartekaritza eta prebentzioa,
- Auzo eta eremu publikoen zainketa,
- Ibilgailuen aparkatzearen erregulazioa,
- Ekitaldiak direnean jendetza kudeatu,
- Atzeman diren objektuen kudeaketa,
- Zakur herratuen harrapatzea,
- Ibilgailu bakartuak bahitegira eramatea,
- Eskuhartze bakoitzaren dokumentu profesionalen idaztea eta segiaraztea.

Enplegua C kategoriakoa da.

Enpleguen taula honela egokitua izanen da:

Enplegua: Udaltzaina.

Dago(z)kion gradua(k) Gardien Brigadier
Brigadier-chef principal

Kategoria hierarkikoa: C

Aurrekontuko zenbatekoa: 1

Asteko batezbesteko lan denbora: denbora osoa

Enplegua honako baldintzetan betetzen ahalko da:

- lurraldeko udaltzain mailako funtzionario baten kontratatzea Frantziako Funtzio Publikoaren Kode Orokorreko L.311-1 artikulua finkatzen duen printzipioa betez, zeinaren arabera, legezko salbuespenez aparte, departamendu, herri eta horien erakunde publiko administratiboetako enplegu zibil iraunkorrak funtzionarioek betetzen dituzte,

Gainera, lanpostuak dagozkion sari eta ordainak izanen lituzke, lurraldeko udaltzain mailako funtzionarioentzat finkatu bezala, eta 2018ko azaroaren 26ko Herri Biltzarrak deliberatu duenaren arabera.

Auzapezaren azalpen osagarriak entzunik eta deliberaturik, Herri Biltzarrak aho batez:

ERABAKI DU 2024ko urtarrilaren 1etik goiti denbora osoko udaltzain enplegu iraunkor baten sortzea.

- Enplegua betetzeko funtzionario kontratatzen ahalko dela,

ONARTU DU Auzapezaren proposamen guztiak,

ZEHAZTU DU kreditu nahikoa badela urteko aurrekontuan.

026 – Langileria: lurralde ingeniari eta teknikarien Funtzio, Menpekotasun, Adituria eta Engaiamendu Profesionala kontuan hartzen dituen Ordainsari Erregimena (RIFSEEP).

ERABAKIA:

Auzapezak Herri Biltzarrari oroitarazi dio 2018ko azaroaren 26ko 034. erabakiz 2019ko urtarrilaren 1etik goiti RIFSEEP ezartzea erabaki zuela. RIFSEEP bitan zatitua da: batetik, funtzio, menpekotasun eta adituriari datxikon saria, eta bestetik urteko ordainsari osagarria honako enplegu esparruetako eta zuzenbide publikoko langile, funtzionario eta kontratupekoentzat:

- Arduradunak (attaché)
- Erredaktoreak
- Administrazio laguntzaileak
- Talde arduradunak
- Teknikari laguntzaileak
- Kirol hezitzaileak
- Animazio laguntzaileak
- ABLA
- Ondarearen kontserbatzeko lurraldeko arduradunak
- Ondarearen kontserbatzeko laguntzaileak
- Ondarearen kontserbatzeko ordeak

Auzapezak zehaztu du, 2020ko otsailaren 27 ko 2020-182 frantses dekretuak, lurraldeko funtzio publikoko langileen ordainsari erregimenari buruzkoa, RIFSEEPerako hautagai definitu dituela honako enpleguak:

- Lurraldeko ingeniariak
- Lurraldeko teknikariak

Ondorioz, biltzarkideei proposatu die, 2024ko urtarrilaren 1etik goiti, RIFSEEP bi enplegu esparru horiei zabaltzea.

Honela, enplegu esparru horietako langileek RIFSEEP eskuratuko dute beren lankideen ber baldintzetan, 2018ko azaroaren 26ko Herri Biltzarraren erabakia betez.

Ondorioz, lanbide irizpideen arabera funtzio talde bati atxikiko zaizkio, eta erabaki hark finkatu banakako sariak eskuratuko, enplegu esparru bakoitzari dagozkion mugen barnean:

Sail teknikoa

- Lurralde ingeniariak

Taldea	Enpleguak	IFSE - Urteko zenbateko gorena	CIA – Urteko zenbateko gorena	Urteko zenbateko gorena
1. taldea	Egitura zenbaiten kudeaketa	36 210 €	6 390 €	42 600 €
2. taldea	Egitura zuzendari / Zerbitzu bat edo gehiagoren zuzendaritza	32 130 €	5 670 €	37 800 €
3. taldea	Zerbitzu arduradun-orde / aditua /koordinazio eta gidaritza funtzioa	25 500 €	4 500 €	30 000 €

- Lurralde teknikariak (B kategoria)

Taldea	Enpleguak	IFSE - Urteko zenbateko gorena	CIA – Urteko zenbateko gorena	Urteko zenbateko gorena
1. taldea	Egitura baten zuzendaritza, zerbitzu burua	17 480 €	2 380 €	19 860 €
2. taldea	Zerbitzu edo egitura buru-ordea, aditua berezia	16 015 €	2 185 €	18 200 €
3. taldea	Hurbileko talde arduraduna, teknikotasun bereziko lanpostua	14 650€	1 995 €	16 645 €

IFSE hilero ordainduko da banakako urteko kopuruaren mugen barnean.

CIA bi alditan ordainduko da, ekainean eta abenduan.

Herri Biltzarrak, Auzapezaren azalpen osagarriak entzun eta gero, eta 2018ko azaroaren 13ko Batzorde Teknikoaren bi kolegioen aldeko iritzia ukanik, eta eztabaidaturik, aho batez:

ONARTU DITU sari eta ordainsari desberdinak finkatzen dituzten testuak, honako biltzarrak hartu esleipenerako baldintza bereziak kontuan izanik, hots:

- Lurralde Kolektibitateen Frantziako Kode Orokorra
- 1983ko uztailaren 13ko Frantziako 83-634 legea, funtzionarioen eskubide eta betebeharrei buruzkoa, eta bereziki haren 20. artikulua,
- 1984ko urtarrilaren 26ko Frantziako 84-53 legea, Lurralde Funtzio Publikoaren estatus xedapenei buruzkoa, eta bereziki haren 88. artikulua,
- 1991ko irailaren 6ko 91-875 frantses dekretua, 1984ko urtarrilaren 26ko Lurralde Funtzio Publikoaren xedapenei buruzko legeko 88. artikuluko 1. lerrokadaren arabera hartua,
- 2014ko maiatzaren 20ko Frantziako 2014-513 dekretu moldatua, ordainsari erregimenen eratzeari buruzkoa, funtzioa, menpekotasuna, aditurgia eta engaiamendua kontuan hartuz,
- 2010eko agorriaren 26ko Frantziako 2010-997 dekretua, frantses estatuko langile publikoen eta ordena judizialeko magistratuen sari eta ordainsariak oporraldi egoera batzuetan mantentzeko erregimenari buruzkoa,
- 2014ko abenduaren 16ko Frantziako 2014-1526 dekretua, lurralde funtzionarioen balio profesionalaren antzemateari buruzkoa,
- 2020ko otsailaren 27ko Frantziako 2020-182 dekretua, lurralde funtzio publikoko langileen ordainsari erregimenari buruzkoa,
- 2014ko maiatzaren 20ko frantses estatuaren ordenantza, estatu bereko administrazioetako administrazio-laguntzaileei dagokien 2014ko maiatzaren 20ko Frantziako 2014-513 dekretu eta datxikon eranskina aplikatzeko, estatu bereko funtzio publikoko langileen ordainsari erregimenen eratzeari buruzkoa, funtzioa, menpekotasuna, aditurgia eta engaiamendua kontuan hartuz,
- 2015eko apirilaren 28ko frantses estatuaren ordenantza, estatu bereko administrazioetako teknikari-laguntzaileei dagokien 2014ko maiatzaren 20ko Frantziako 2014-513 dekretu eta datxikon eranskina aplikatzeko, estatu bereko funtzio publikoko langileen ordainsari erregimenen eratzeari buruzkoa, funtzioa, menpekotasuna, aditurgia eta engaiamendua kontuan hartuz,
- 2015eko ekainaren 3ko frantses estatuaren ordenantza, estatu bereko administrazioetako administrazio-arduradunei dagokien 2014ko maiatzaren 20ko Frantziako 2014-513 dekretu eta datxikon eranskina aplikatzeko, estatu bereko funtzio publikoko langileen ordainsari erregimenen eratzeari buruzkoa, funtzioa, menpekotasuna, aditurgia eta engaiamendua kontuan hartuz,
- 2017ko abenduaren 17ko frantses estatuaren ordenantza, estatu bereko eta barne ministerioko administrazioetako administrazio-arduradunei dagokien 2014ko maiatzaren 20ko Frantziako 2014-513 dekretu eta datxikon eranskina aplikatzeko, estatu bereko funtzio publikoko langileen ordainsari erregimenen eratzeari buruzkoa, funtzioa, menpekotasuna, aditurgia eta engaiamendua kontuan hartuz,
- 2015eko abenduaren 18ko frantses estatuaren ordenantza, estatu bereko eta barne ministerioko administrazioetako administrazio-laguntzaileei dagokien 2014ko maiatzaren 20ko Frantziako 2014-513 dekretu eta datxikon eranskina aplikatzeko, estatu bereko funtzio publikoko langileen ordainsari erregimenen eratzeari buruzkoa, funtzioa, menpekotasuna, aditurgia eta engaiamendua kontuan hartuz,
- 2016ko abenduaren 30eko frantses estatuaren ordenantza harrera, zaintza eta biltegietako teknikari-laguntzaileei 2014ko maiatzaren 20ko 2014-513 dekretua aplikatzeko,
- 2017ko ekainaren 16ko frantses estatuaren ordenantza, estatu bereko eta barne ministerioko polizia nazionalako teknikari-laguntzaileei dagokien 2014ko maiatzaren 20ko Frantziako 2014-513 dekretu eta datxikon eranskina aplikatzeko, estatu bereko funtzio publikoko langileen ordainsari

- erregimenen eratzeari buruzkoa, funtzioa, menpekotasuna, adituria eta engaiamendua kontuan hartuz,
- 2015eko agorrilaren 27ko frantses estatuaren ordenantza, estatu bereko 2014ko maiatzaren 20ko 2014-513 dekretuko 5. artikulua aplikatzeko moldatua, estatu bereko funtzio publikoko langileen ordainsari erregimenen eratzeari buruzkoa, funtzioa, menpekotasuna, adituria eta engaiamendua kontuan hartuz,
 - 2017ko abenduaren 7ko frantses estatuaren ordenantza, estatu bereko ondarearen kontserbadoreei dagokien 2014ko maiatzaren 20ko Frantziako 2014-513 dekretua aplikatzeko, estatu bereko funtzio publikoko langileen ordainsari erregimenen eratzeari buruzkoa, funtzioa, menpekotasuna, adituria eta engaiamendua kontuan hartuz,
 - 2018ko maiatzaren 14ko frantses estatuaren ordenantza, estatu bereko 2014ko maiatzaren 20ko 2014-513 dekretua aplikatzeko, estatu bereko funtzio publikoko langileen (liburutegietako kontserbadore nagusiak, liburutegietako kontserbadoreak, liburuzainak, liburuzain-laguntzaile berezituak eta liburutegietako biltegiratzaileak) ordainsari erregimenen eratzeari buruzkoa, funtzioa, menpekotasuna, adituria eta engaiamendua kontuan hartuz,
 - 2021eko azaroaren 5eko frantses estatuaren ordenantza, estatu bereko 1. eta 2. taldeko obra publikoetako ingeniariari eta obra publikoetako ingeniari nagusiei dagozkien 2014ko maiatzaren 20ko 2014-513 dekretua aplikatzeko, estatu bereko funtzio publikoko langileen ordainsari erregimenen eratzeari buruzkoa, funtzioa, menpekotasuna, adituria eta engaiamendua kontuan hartuz,
 - 2021eko azaroaren 5eko frantses estatuaren ordenantza, garapen iraunkorraren teknikari gorenei dagokien 2014ko maiatzaren 20ko 2014-513 dekretua aplikatzeko, estatu bereko funtzio publikoko langileen ordainsari erregimenen eratzeari buruzkoa, funtzioa, menpekotasuna, adituria eta engaiamendua kontuan hartuz,
 - NOR zirkularra: 2014ko abenduaren 5eko RFFF1427139C ordainsari erregimenen eratzeari buruzkoa, funtzioa, menpekotasuna, adituria eta engaiamendua kontuan hartuz,

ONARTU DITU Auzapezak eman RIFSEEP sariak onuradunei emateko eta eguneratzeko baldintzak, baita honako erabakian eman diren zenbatekoak ere.

BAIMENA EMAN DIO Auzapezari, ordenantza egin eta izenpetzeko, lehenago zehaztu muga eta irizpideetan.

ZEHAZTU DU - honako erabakia 2024ko urtarrilaren 1ean sartuko dela indarrean
- kreditu nahikoa badela urteko aurrekontuan.

HITZ HARTZEAK:

Zerbitzuetako Zuzendari Nagusiak azaldu du ordainsarien erregimen aldaketa 2019koa dela. Momentu hartan, ingeniariak eta teknikariak ez ziren lehen fasean txertatu, legearen aplikatzeko dekretuak atera ez baitziren. Dekretuok beste sailentzako baino denbora gehiago hartu dute argitaratuak izateko.

027 – Txakurrak XBHAS: 2022ko jarduera txostenaren aurkezpena.

ERABAKIA:

Barbier jaunak, herri biltzarkidea, herri biltzarkideei jakinarazi die Txakurrak XBHAS-ak 2022ko jarduera txostena helarazi duela. (ikus eranskineko dokumentua)

Frantziako Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorreko L.5211-39 artikulua dionenez, « Auzapezak txosten horren berri eman behar dio Herri Biltzarrari, saio publiko batean, non herri arteko lankidetzarako erakunde publikoko organo erabakitzailerako herri ordezkarien hitza entzuten baita. »

Txakurrak sindikatuan herriak duen ordezkariaren azalpenak entzun ondotik, Herri Biltzarrak, aho batez:

AINTZAT HARTU DU, Txakurrak XBHAS-aren 2022ko jarduera txostena.

028 – Euskal Elkargoa: Hondakinen prebentzio eta kudeaketa Zerbitzu Publikoaren Salneurri eta Kalitateari buruzko 2022ko txostena.

ERABAKIA:

Vincent Goytino jaunak, auzapezordea, honakoa aurkeztu du:

Frantziako Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorreko L.2224-17-1 artikulua Auzapezak eta herri arteko lankidetzarako erakundeetako lehendakariak behartzen ditu etxe hondakinen eta antzekoen prebentzio eta kudeaketa zerbitzu publikoaren kalitateari eta prezioari buruzko txostena aurkeztera urtero.

2023ko irailaren 30eko saioan, Euskal Hirigune Elkargoko batzorde nagusiak 2022ko txostena aztertu zuen.

Frantziako Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorreko D.2224-3 artikulua arabera, Auzapezak txosten hori aurkeztu behar dio bere Herri Biltzarrari, saiorik hurbilenean.

Zerbitzuari buruzko zenbakiak: 197 340 tona etxe-hondakin bildu dira, hots 619 kg biztanleko, eta horietatik %68 birziklatu dira. Zerbitzuak 311 langile titular ditu, bereizterako 17 enbaxadore eta 25 hondakindegia.

Orotara, hondakinen bilketa eta birziklatze zerbitzuaren kostua 49 M€koa da.

2022an, hondakinen prebentzio ekintzak egiten segitu dute.

Bilketari dagokionez, enbalajeen bereizketaren sinplifikatzea derrigorrezko bilakatu zen 2023ko urtarrilaren 1ean, eta horrek lurraldeko hondakinen kudeaketa politikan urrats berri esanguratsua suposatzen du. Honela, enbalajeen bilketa bolumena emendatuko da, baita horien birziklatzea ere sail berrien garapenari esker.

Hondakinen ekoizpenari dagokionez:

	2022ko kantitateak		2021eko zama tonaka	2022ko eraginkortasuna	2021eko eraginkortasuna	2021/2022 bilakaera
	%tan	tona				
Bilketa zerbitzua	%14,4	28 489 T	29 235 T	89 kg/biz	93 kg/biz	-%4
Hondakindegia	%40,7	80 279 T	83 406 T	252 kg/biz	265 kg/biz	-%5
Etxe-hondakinak	%44,9	88 572 T	90 573 T	278 kg/biz	287 kg/biz	-%3
Orotara	%100	197 340 T	203 214 T	619 kg/biz	645 kg/biz	-%4

Aitzineko urtean biztanleko 28 kg emendatu eta gero, 2021 eta 2022 artean pertsona bakoitzeko hondakin ekoizpena 26 kg txikitu da, eta hori fluxu guztietan eman da: -13 kg hondakindegietan, -9 kg edukiontzi beltzetan, -4 kg bilketa selektiboan.

2010-2022 artean, banakako ekoizpena aski egonkorra da (-%1), banakako ekoizpen osoa 2010ean 625 kg-koa zelarik eta 619 kg 2022an.

Konparaketa egiteko, Frantziako ADEME agentziaren arabera, 2019an Frantziaren batezbestekoa biztanleko 582 kg-koa zen. Gure lurraldean, haatik, turismoak eragin handia duen arren, bereizketan eta hondakinen prebentzioan hobekuntza aukerak baditugu.

Halere, baditugu datu itxaropen-emaileak: hondakindegietan eta bilketa selektiboko zamak emendatu dira, eta etxeko hondakin erresidualak murriztu dira. Etxeko hondakin erresidualen zama 331 kg/urte/biztanle genuen 2010ean eta 278 kg/urte/biztanle 2022an. Beheranzko joera hori interesgarria da, eta oraindik hobetu genezake prebentzioari eta bereizketari esker.

Goytino jaunaren azalpen osagarriak entzunik, Herri Biltzarrak aho batez:

AINTZAT HARTU DU, etxe-hondakinen eta antzekoen prebentziorako eta kudeatzeko zerbitzu publikoaren prezioei eta kalitateari buruzko 2022ko txostena.

029 – Euskal Elkargoa: Ur edangarriaren eta saneamendu kolektibo eta bakarkakoaren Zerbitzu Publikoaren Salneurriei eta Kalitateari Buruzko 2022ko txostena.

ERABAKIA:

Vincent Goytino jaunak, auzapezordea, honakoa aurkeztu du:

Frantziako Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorreko D2224-1 eta ondorengo artikulua segituz, Auzapezak ur edangarriaren zerbitzu publikoaren prezioei eta kalitateari buruzko urteko txostena aurkeztu behar dio Herri Biltzarrari. Etxe-hondakinekin bezala, saneamendu zerbitzuarentzako, kolektiboa ala banakakoa izan, gauza bera egin behar du.

Kanbo herriak ur edangarriaren hornikuntzaren kudeaketa (UEH/AEP) saneamendu kolektiboarena (SK) eta saneamendu indibidualarena (SI) Euskal Hirigune Elkargoaren esku utzi zuen 2018ko urtarrilaren 1etik goiti, Herri Biltzarraren 2017ko azaroaren 4ko erabaki baten ondotik.

Euskal Elkargoa uraren zikloaren kudeaketaz arduratzen da, sorgitik iturrira, Ipar Euskal Herriko 158 herrietan. « Gure Ura, l'eau du Pays Basque » markarekin, erabiltzaile guzietatik hurbil den zerbitzu eraginkorrek eskaintzera engaiatzen da.

Pertsonen osasuna eta ingurumena zaintzea du helburu, eta koherentzia asmo batekin uraren kalitatea lurralde osoan berdina izateko xedea du «jakitateak uztartuz». Honako puntuetan ezartzen du arreta berezia:

- Ur-baliabidearen zaintzea;
- Biztanleriarentzako zerbitzuen eraginkortasuna bermatzea;
- Lurraldearen ezagutza sakontzea eta partekatzea.

2023ko irailaren 30eko erabakiz, Elkargoko batzorde nagusiak bere uraren zerbitzuak egin 2022ko txosteneko xedapenak eta formalitateak aintzat hartu zituen. Honakoak jorratzen ditu txostenak:

- Zerbitzuaren ezaugarri teknikoak;
- Ur edangarriaren salneurriak, saneamendu kolektiboa eta indibiduala, eta zerbitzuen diru sarrerak;

- Eraginkortasun-adierazleak;
- Inbertsioen finantzazioa;
- Uraren alorreko elkartasun eta lankidetzaren deszentralizatuko ekintzak.

Txostena elkargoko herri bakoitzari helarazi zaio, Herri Biltzarretan aurkeztua izan dadin, berantekin kontularitza ekitaldia bukatu eta 9 hilabetera.

Ikuspegi horrekin, ur eta saneamendu zerbitzu publikoaren zerbitzuen kalitateari buruzko txostenak 2022an egin diren ekintza eta gauzatzeen ebaluazioa argitzera dator. Kanbori dagokionez, honako elementuak ematen ditu:

I. FINANTZA ALORREAN

1. Ur edangarriaren hornikuntza

Kanbo hornitzeko urak honako sorgietatik heldu da:

- Ursuiako sorgia;
- Latseko sorgia;
- Larresoroko Errepera zulaketa;
- Luhusoko zulaketa.

Nolazpait errateko, Kanbon banatua den uraren %50 Latsia/Ursuiako sorgietatik eta beste %50 Erreperatik heldu da. Luhusoko ura gehigarri txiki gisa baliatzen da (3 000 m³ baino gutxiago).

3. sektorea: Errobi-Aturri/Errobi

Sektorean urtero 3 milioi m³ fakturatzeko dira; Kanbori dagokionez: 461 654 m³ (%53 partikularrak, %43 profesionalak eta %4 tokiko erakundeak), eta 565 731 m³ 2021ean

Uraren kalitatea: Kanbon banatzen den urak kareharri gutxi du eta mineralizazio apalekoa da. Mikrobiologia eta fisika-kimika terminoetan irizpideak %100ean betetzen ditu.

Ur edangarriaren prezioa 2022an: 1,9331 € ZB/m³ (lau pertsonako etxebizitza batentzako urtean 120 m³, parte finkoak barne). 2021ean 1, 8682 € ZB/m³-koa zen, hots %3.47ko emendatzea. Emendatzea Zerbitzu Publikoko Delegazio-kontratuan aurreikusi diren prezio indizeen eguneratzearen ondorio dira. Indizeok automatikoki aplikatzen dira eta delegazio-esleipendunaren (SUEZ) parte igoarazten dute.

2. Saneamendu kolektibo eta ez-kolektiboa

Harpidetuak: 3 366 saneamendu kolektiboarentzat, honela banaturik: 3 112 norbanako, 236 profesional eta 18 tokiko erakunde saneamendu kolektiboko sareari lotuak;

46.49 km-ko sarea, araztegi lekin eta 17 kanporatze-estazio;

Honako ur kantitateak tratatzen dira: 571 997 m³ eta sareko 5,6 km garbituak;

2019ko ur tratatuaren prezioa: 2,9516 € ZB/m³ (lau pertsonako etxebizitza batentzako urtean 120 m³ parte finkoak barne). 2021ean, 2,4112 € ZB/m³, hots %24,54ko emendatzea.

Metro kuboko prezioa: 4,88 €/m³ (parte finkoa eta zergak barne) 2021ean, lehenago 4,28 €/m³-tan zen, hots %14,01eko emendatzea.

2 heldu eta 2 hurrez osaturiko 4 pertsonako etxebizitza batentzat eta 120 m³ko kontsumo batentzat, parte finkoak barne, ur eta saneamendu faktura urtean 585,60 €koa da, zergak barne.

II. ALDE TEKNIKOTIK ETA EUSKAL ELKARGOAREN EGITASMOAK

1. Ur edangarriaren hornikuntza

Ekipamenduak erregulariki kontrolatzen dira ongi ibiltzen direla egiaztatzeko: balizko itokinen detektatzea, funtzionamendu okerrak. Kasuan kasu, mantenu edo konponketa lanak egiten dira.

Etorkizuneko beharren analisiak eta aurreikusteak batetik, eta ur edangarriaren hornikuntzaren jarraikortasuna bermatzeak bestetik, izan kalitatearen nola kantitatearen aldetik, ondare horrentzako inbertsio politikan eragin zuzena dute: hedapen eta berritze lanak, tratamendu sailen egokitzea, Euskal Elkargoko alerta sistemak eta etengabeko diagnostikoa.

3. sektoreari dagokionez, txostenak Marieniako biltegitratze-ontzien erreabilitazio lanak aipatzen ditu.

2. Saneamendu kolektibo eta ez-kolektiboa

Sareen prebentziozko mantenuari esker bilketa hobeki kudeatzen da. Ustiatzaileen eskura diren ekipamenduen kalitateaz eta horien mantenuaren egokitzeko beharraz jabetzeko badira hainbat adierazle.

Etengabeko diagnostikoa arriskua kontrolatzeko dispositiboa da, zeinak ustiaketa eta inbertsio programaren norabidea finkatzen baitu, saneamendu sistemak isurtze ingurunean duen inpaktua murrizteko. Maiztasuna gutxienez urtean behinekoa da.

Goytino jaunaren azalpen osagarriak entzunik, Herri Biltzarrak aho batez:

AINTZAT HARTU DU, ur edangarriaren eta saneamendu zerbitzu publikoaren prezioei eta kalitateari buruzko 2022ko txostena.

HITZ HARTZEAK:

Vincent Goytino jaunak uraren prezioei buruzko txostenaren elementu nagusi bat azpimarratu du. Zerbitzu Teknikoetako Zuzendariak eskuratu duen txostenari informazio osagarria gehitu du, ur metro kuboaren prezioari buruz. Agerian eman ditu ur edangarriaren eta saneamenduan izan diren emendatze azkarrak.

2022an, ur edangarriko m³a 1,93 €an zen, eta 1,87 € 2021ean. Saneamendua, berriz, 2,95 € 2022an eta 2,41 € aitzineko urtean. Bi kostu horiek gehituz, m³a 4,88 €an zen 2022an eta 4,28 € 2021ean, %14 emendatze bat izan da.

030 – Euskal Elkargoa: 2022ko jarduera txostenak.

ERABAKIA:

Auzapezak herri biltzarkideei jakinarazi die Euskal Hirigune Elkargoak 2022ko jarduera txostena helarazi duela eta berau biltzarkide guztiei e-mailez luzatu zaiela.

Frantziako Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorreko L.5211-39 artikulua dioenez, « Auzapezak txosten horren berri eman behar dio Herri Biltzarrari, saio publiko batean, non herri arteko lankidetzarako erakunde publikoko organo erabakitzaileko herri ordezkarien hitza entzuten baita. »

Txostenak lurralde erakundearen ekintzak eta proiektuak ematen ditu agerian, Lurralde Proiektuan zehaztu diren ardatz estrategikoari lotuz.

Adierazle batzuek politika horiek lurraldean eta biztanleengan izan duten eragina konkretuki neurtzeko aukera ematen dute.

Auzapezaren azalpenak entzunik, Herri Biltzarrak, aho batez:

AINTZAT HARTU DU, Euskal Hirigune Elkargoaren 2022ko jarduera txostena.

– Bestelako gaiak:

Peio Etxeleku jaunaren lehen galdera:

"2023ko azaroaren 7ko egunsentian, polizia dispositibo harrigarriek atxiloketa ikusgarriak burutu zituzten. Gure historia hurbilaren orenik ilunenak ekarri zizkiguten gogora. Dispositibo horiek frogatu dute Kanbo herriko hainbat proiektu enblematikoren (adibidez Marienia edo Usimendia) ikuspegiak gero eta kontrajarriagoak direla.

Gutariko asko asaldatu ditu erabili diren neurriz kanpoko polizia indarrak Bouygues Immobilier promotorearen agentzian egin den desobedientzia zibileko ekintza baten parean. Promotore horrek eraikitze baimen berria aurkeztu berri duelarik, klima larrialdiak egunero erakusten duelarik artifizializatu gabeko lurra ahal bezainbat zaintzea hil ala biziko gaia delarik eta indarkeriaren areagotzea gero eta hurbilago dugularik, onartuko al zenuke Herri Biltzarraren bozkara ematea bi proiektu horien berrestea edo baieztatzea?"

Argitxu Hiriart-Urruty anderearen galdera:

"Auzapez jauna,

Jakin dugu Marienia ordokiko eraikitze baimena onartua izan dela. Eskatzen dizugu gai garrantzitsu hori 2023ko abenduaren 12ko Herri Biltzarreko solasgaietan ezartzea, eztabaidatzea, merezi baitu".

Bi galderen irakurketa egin eta gero, Auzapezak honako erantzuna eman du:

Lehenik, Peio Etxeleku jaunak eta Argitxu Hiriart-Urruty andereak gai bat solasgaien zerrendan ezartzeko eskaerari buruz, Auzapezak oroitarazi du arauen errespetu soiletik, eta Herri Biltzarraren lehendakari den ber, solasgaia ezin dela bakoitzak nahi duen bezala moldatu saioa hasi aitzin.

Arrats honetako saioari dagokionez, oroitarazi du legeak behartzen duen bezala solasgaia saioa baino 5 egun lehenago igorri dela eta errespetatu behar dela.

Bigarrenik, bi proiektuei buruzko jarrerari dagokionez.

Marienia: eraikitze baimen egokituaren izenpetzea:

2023ko maiatzaren 16an, Administrazio Epaitegiak epaia atzeratu du eraikitze baimena zuzentzeko denbora emanez. Erabaki horren oinarrian dugu, epaileak ez duela eremu horretan eraikitze baimena zalantzan ezarri, eta A eta B eraikinek ez dituztela Kanboko THPko 1AU9 artikulua exigentziak betetzen (28 m-ko fatxada).

Epaitegiak bost hilabeteko epea eman du zuzenketa aurkezteko.

Bouygues Immobilier promotoreak Herriko Etxean aurkeztu duen eraikitze baimen egokituak epailearen aginduak betetzen dituenek, auzapeza lotura-eskumen egoeran aurkitzen da, erran nahi baita ez duela Bouygues Immobilier promotoreak aurkeztu eraikitze baimen berria onartzea baino beste aukerarik, epailearen aginduak betetzen dituelako.

Dagoeneko, epaileak soilik erran dezake egokitzapenak behar bezalakoak diren eta akatsa zuzendu denetz. Izatez, eraikitze baimen egokituak THP ez aplikatzea zuzentzen du, eta ondorioz iragan ekainaren 30eko justizia erabakiaren egikaritze neurria besterik ez da.

Epaitegiaren erabakia errespetatzeko, Auzapezak baimen egokitua izenpetu behar du, zeren lehenago identifikatu zen akatsa zuzentzen baitu.

Honela, Auzapezaren izenpetzea ez da administrazio ekintza soila, baizik eta justizia-erabakitik eratorritako legezko beharmendu bat.

Usimendia:

Gai honen instrukzioa 2023ko urtarrilean burutu zen. Administrazio epaitegiak eman behar duen entzunaldiaren dataren beha gaude. Marienia kasuan bezalaxe, justiziaren erabakiaren beha gaude hura aplikatzeko.

Gai horiei buruz izan ohi dugun jarrerarekin segituz, ez dugu besterik erranen bi gai horiei buruz, biak auzi bidean baitaude (erabakiaren gibelatzea Marieniaren kasuan eta Administrazio Epaitegian aurkeztu helegitea Usimendiaren kasuan).

Peio Etxeleku jaunaren bigarren galdera:

"Ba al dakizu 2023ko funtsen zerga gisa bildu diren zenbatekoak nola aldatu diren zerga oinarriak berrikustearen ondorioz, eta horrek gure zerga tasetan duen eragina?"

Auzapezak ihardetsi dio erantzunak Frantziako zerga administrazioak helaraziko duen 1288 egoeran aurkitu beharko dela. Normalean egoera agiri hori irailean eman ohi du. Halere, aurtengo kasuan, Herriak Pirinio Atlantikoetako Finantza Publikoetako Zuzendaritzatik e-maila eskuratu berri du, non jakitera ematen baita frantses estatu mailan dauden zailtasunen ondorioz egoera horrek beranta hartu duela.

1288 egoeraren beha gaude ikusteko zehazki zer den fiskalitate horren emaitza zehatza.

Peio Etxeleku jaunaren hirugarren galdera:

"Zertan da udalak 2023 bukaerarako aurkeztu behar duen energia berriztagarrien ekoizpenaren azeleratzeko eremuen deklarazio-txostena? Identifikatu al da ekoizpen hidroeletrikorako aukerarik? Jakin genezake zer kartografia deklaratu den?"

Auzapezak zehaztu du Etxeleku jaunak ez duela galde hori arauzko epean helarazi, eta teorikoki ez duela zertan erantzun behar.

Halere, onartu du elementu batzuk ematea, Frantziako estatuak energia berriztagarrien ekoizpena azeleratzeko eremuentzako abiatu duen urraspidearen baitan.

Udalak hainbat arlotan jardun dezake: eguzkia, fotovoltaikoa, eolikoa, geotermia, bero-sareak, metanizazioa. Mapa atzotik baino ez da eskuragarri frantses gobernuaren webgunean, eta bertan jadanik agertzen dira aukera batzuk.

Balio du, beraz, horren aztertzea, menturazko eremuak berrestea edo beste batzuk baztertzea, hala nola haize-errotak.

Bilkura bat izan da iragan abenduaren 5ean, Errobi Lurralde Eremuan Ipar Euskal Herriko ekoizpen hidroeletrikoari buruz, eta bertan izan dira Jean-Paul Eyherachar eta Isabelle Ayerbe. Mozio bat aurkeztu dute sail horren sostengatzeko, eta erabaki behar dugu izenpetzen dugun ala ez.

Kanboko eremuari dagokionez, ez dugu zentral hidroeletrikorik indarrean, eta Behereko Plazako Ola eta Ezpeletako bideko eiharak ez daude erabilgarri. Baina, Auzapezak adierazi du mozio bat izaten badela ados dela hura izenpetzeko, elkartasun soilagatik baldin bada ere.

Auzapezak Herri Biltzarraren saioa 22:06an hetsi du.